

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

**BIZKAIKO URI HONDAKINEN
AURREZAINZARAKO PLANA
2010-2016**



2010eko URTARRILA

Aurkibidea

| | |
|---|-----------|
| 1. SARRERA | 1 |
| 2. PLANAREN HELBURUAK, LURRALDE EREMUA ETA IRAUPENA..... | 2 |
| 3. AURREZAINZARAKO PLANAREN ZERGAITIA | 3 |
| 3.1. EUROPAKO BATZORDEAK HONDAKINEN AURREZAINZAZA ETA BERZIKLAPENARI BURUZ DAUKAN ESTRATEGIA TEMATIKOA | 3 |
| 3.2. HONDAKINEI BURUZKO ESPARRU ZUZENTARUA | 4 |
| 3.3. 2008-2015EKO HONDAKINEN PLAN NAZIONAL INTEGRAUA..... | 7 |
| 3.4. EAEKO URI HONDAKINEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETARAKO JARRAIBIDEAK | 8 |
| 4. PLANAREN HELBURU DIRAN HONDAKINAK..... | 9 |
| 4.1. UHEN SAILKAPENA AURREZAINZARAKO PLANEAN..... | 9 |
| 4.2. LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO HONDAKINAK | 10 |
| 5. UHEN SORRERAREN BILAKAERA 2004. ETA 2009. URTEEN ARTEAN..... | 11 |
| 5.1. EHEN SORRERAREN BILAKAERAREN AZTERKETA | 12 |
| 5.2. IMEHAEN SORRERAREN BILAKAERAREN AZTERKETA..... | 13 |
| 5.3. UHEN SORRERAREN BILAKAERAREN AZTERKETA | 14 |
| 6. AURREZAINZAZA 2005-2016KO BIZKAIKO URI HONDAKINAK KUDEATZEKO II. PLAN INTEGRALEAN | 16 |
| 6.1. 2005-2016KO II. BUHKPIKO PRINTZIPIO ESTRATEGIKOAK | 16 |
| 6.2. II. BUHKPIKO AURREZAINZAZAREN HELBURUAK | 16 |
| 6.2.1. <i>Gitxitzeko helburuak</i> | 16 |
| 6.2.2. <i>Berrerabilteko helburuak</i> | 18 |
| 6.3. KOMUNIKAZINOA ETA HERRITARREN SENTSIBILIZAZINOA..... | 19 |
| 6.3.1. <i>Hondakinen sorreraren gorakadari aurre egiteko aurrezaintza</i> | 19 |

| | |
|---|-----------|
| 7. PLANAREN HELBURU NAGUSIAK URI HONDAKINEN AURREZAINZAREN ARLOAN | 20 |
| 7.1. 2016RAKO HELBURU NAGUSIAK..... | 21 |
| 7.1.1. 1. helburu nagusia: 1,13 kg/bizt/eguneko EH sorrerari eustea | 21 |
| 7.1.2. 2. helburu nagusia: 2016an 220.000 Tm/urteko IMEHa sorrera ez gainditzea..... | 22 |
| 7.1.3. 3. helburu nagusia: 2016an 697.000 Tm/urteko UH sorrera ez gainditzea..... | 23 |
| 7.2. HELBURUEN GARAPENA | 24 |
| 7.2.1. Lerro estrategikoak..... | 25 |
| 7.2.2. Jarduketan plangintza..... | 27 |
| 8. LERRO ESTRATEGIKOAK ETA XEDEAK..... | 29 |
| 8.1. 1. LERRO ESTRATEGIKOA: BIZIMODUAK ALDATZEA | 29 |
| 8.1.1. LE-1.A. xedea: kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea | 29 |
| 8.1.2. LE-1.B. xedea: informazio eta komunikazioaren teknologiek desmaterializazioari begira daukien ahalmena aztertzea | 35 |
| 8.1.3. LE-1.C. xedea: kontsumitzaile arduratsuagoak izateko heztea | 38 |
| 8.2. 2. LERRO ESTRATEGIKOA: KONTSUMO-OHITURAK ALDATZEA | 42 |
| 8.2.1. LE-2.A. xedea: produktuen erabilera zentzunezkoagoa lortzeko heztea..... | 42 |
| 8.2.2. LE-2.B. xedea: konponketa, berrerabilpena eta alogera bultzatzea | 43 |
| 8.2.3. LE-2.C. xedea: iturriko uraren kontsumoa sustatzea | 46 |
| 8.2.4. LE-2.D. xedea: erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea eta, aldi berean, botateko plastikozko boltsen erabilera gitxitzea..... | 47 |
| 8.3. 3. LERRO ESTRATEGIKOA: GAUR EGUNeko EKOIZPEN-EREDUAN ERAGINA EUKITEA | 49 |
| 8.3.1. LE-3.A. xedea: produktu etako substantzia toxikoak gitxitzea | 50 |
| 8.3.2. LE-3.B. xedea: produktu etako material-kopurua gitxitzea eta lehengai berziklatuen erabilera sustatzea | 50 |
| 8.3.3. LE-3.C. xedea: hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikata dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea | 52 |
| 8.4. 4. LERRO ESTRATEGIKOA: BESTE KUDEAKETA-BIDE BATZUK BULTZATZEA | 56 |
| 8.4.1. LE-4.A. xedea: etxeetan hondakin organikoen etxeko konpostgintza bultzatzea . | 57 |
| 8.4.2. LE-4.B. xedea: ekoizleakaz batera, produktu eta material berrerabilgarrietarako merkaduen sorrera sustatzea | 58 |
| 8.4.3. LE-4.C. xedea: ekonomia sozialaren sektoreagaz hitzarmenak bultzatzea..... | 62 |
| 8.5. 5. LERRO ESTRATEGIKOA: ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA..... | 64 |
| 8.5.1. LE-5.A. xedea: uri-hondakinen aurrezaintzarako nazinoarteko ekimenetan parte hartzea | 65 |
| 8.5.2. LE-5.B. xedea: uri-hondakinen toki-aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak bultzatzea..... | 66 |
| 8.5.3. LE-5.C. xedea: erosketa eta kontratazino publiko berdea sustatzea..... | 68 |

| | |
|---|-----------|
| 8.6. BESTE JARDUKETA BATZUK | 71 |
| 8.7. JARDUKETEN LABURPENA..... | 72 |
| 9. PLANAREN JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA..... | 76 |
| 10. ERANSKINAK..... | 84 |
| 10.1. I. ERANSKINA: JARDUKETA, XEDE ETA LERRO ESTRATEGIKOAKAZ ZERIKUSIA DAUKIEN EKINTZA GUZTIEN LABURPEN XEHEA | 84 |

Taulak

| | |
|--|----|
| 1. taulea. 2008-2015eko Hondakinen Plan Nazional Integrauko aurrezaintzaren helburuak..... | 8 |
| 2. taulea. Uri-hondakinen sailkapena..... | 9 |
| 3. taulea. 2004-2009an Bizkaian sortutako UH guztien bananketa..... | 11 |
| 4. taulea. EHen sorrera gordinaren bilakaera. 2004-2009..... | 12 |
| 5. taulea. EH guztien per capita sorreraren bilakaera. 2004-2009..... | 13 |
| 6. taulea. IMEHA guztien sorrera gordinaren bilakaera. 2004-2009..... | 13 |
| 7. taulea. IMEHA guztien per capita sorreraren bilakaera. 2004-2009..... | 14 |
| 8. taulea. UH guztien sorrera gordinaren bilakaera. 2004-2009..... | 14 |
| 9. taulea. UH guztien per capita sorreraren bilakaera. 2004-2009..... | 15 |
| 10. taulea. UHen sorrera gordinaren eta per capita sorreraren aldaketaren bilakaera historikoa eta bihar-etziko prognosia..... | 21 |
| 11. taulea. IMEHAen sorreraren bilakaera historikoa eta helburuak. 2004-2016..... | 23 |
| 12. taulea. UHen sorreraren bilakaera historikoa eta helburuak. 2004-2016..... | 23 |

Irudiak

| | |
|--|----|
| 1. irudia. Hondakinei buruzko Esparru Zuzentarauan hondakinak kudeatzeko zehaztutako hierarkia..... | 5 |
| 2. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren helburu nagusiak..... | 21 |
| 3. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren egiturea..... | 24 |
| 4. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren helburu nagusiak eta lerro estrategikoak..... | 26 |
| 5. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren lerro estrategiko bakotxagaz lotutako xedeak..... | 27 |
| 6. irudia. Xede bakotxagaz lotutako jarduketak..... | 72 |
| 7. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren jarduketan jarraipen-adierazleak..... | 77 |

1. SARRERA

Ingurumeneko Seigarren Ekintza Egitasmo Bateratua ezarteko asmotan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko garagarriaren 22an hartutako 1600/2002/EE Erabagiak hondakinei buruzko legeria garatzeko edo berrikusteko bultzada emoten eban. Horren arabera, argi eta garbi zehaztu beharra egoan zeintzuk ziran hondakinak eta zeintzuk ez, eta, era berean, hondakinen aurrezaintza zein kudeaketarako neurriak be garatu eta helburuak ezarri behar ziran.

Lehenago, 1997ko zezeilaren 24an hondakinak kudeatzeko estrategia bateratuari buruz hartutako ebazpenean, Kontseiluak baieztu egin eban hondakinen aurrezaintza lehenengo lehentasuna izan behar zana hondakinak kudeatukeran eta, hondakinen balorizazio energetikoa barik, berrerabilpena zein material-berziklapena bultzatu behar zirana, aukera ekologiko onenak dira-eta.

Holan, bada, hondakinen aurrezaintzarako jarduketak zelan garatzen diran hobetzeko eta arlo horretako jarduera onenak zabaltzeko asmotan, aurrezaintzari buruzko xedapenak sendotu eta derrigorrezkoa izan behar da hondakinen aurrezaintzarako egitasmoak prestetea, ingurumenaren gaineko funtsezko eraginak eta produktu zein materialen bizi-ziklo osoa kontuan hartuta. Neurri horreek hazkuntza ekonomikoaren eta hondakin-sorreragaz lotutako ingurumen-eraginaren arteko lotunea haustea euki behar dabe helburu. Hondakinak aurrezaintzeko eta deslotzeko helburuak garatu behar dira, hondakinen ondorio kaltegarriak eta sortutako hondakinen kopuruak gitxitu egin behar dirala kontuan hartuta.

Horren ondorioz, Hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentarauko (**Hondakinei buruzko Esparru Zuzentarauko**) 29-31. artikuluetan, estatu kideentzako honako betebeharrak ezartzen dauz, besteak beste:

- ① Gehienez be, hondakinen aurrezaintzarako egitasmoak egitea 2013ko abenduaren 12rako.
- ② Egitasmo horreetan, hondakinen aurrezaintzarako helburuak zehaztea.

Hondakinen arloan, Bizkaiko Foru Aldundiak 2005-2016ko Bizkaiko Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala dauka indarrean, eta, uri-hondakinen bihar-etziko kudeaketaren bitartez, herritarrei kalidadeko zerbitzua eskaintzea dauka helburu. Horretarako kostua ahal danik eta bardinena eta egokituena izango da Bizkaiko Lurralde Historiko osoan, eta, ingurumena babesteko mailak ahal danik eta handienak izango diranez, indarreko arautegiko betekizunak eta garapen iraunkorraren printzipioak bete ahal izango dira.

Era berean, Nazino Batuek hondakinak ahal danik eta gehien gitxitzeko helburua ezarri dauela eta EBk gero eta hondakin gehiago sortzeko gaur eguneko joera geldiarazotea eta ahal dan neurrian alderantzikatzea proposatu dauela kontuan hartuta, aitaturako planean argi eta garbi azaltzen da **hondakinen sorrera gitxitu** behar dana. Horrezaz gainera, **aurrezaintzarako ekintzak egituratzeko** ahalegina egiten dau, gitxitzeko jarduketek tokian-tokian daukiezan mugen barruan.

Testuinguru horretan, lehen aitaturako Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraan zehaztutako jarraibideen arabera, agiri hau 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Plana izango da, eta 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala osotuko dau.

2. PLANAREN HELBURUAK, LURRALDE EREMUA ETA IRAUPENA

Plan honek Hondakinei buruzko Esparru Zuzentarauko betekizunei erantzun gura deuse aurrezaintzaren arloan, eta zuzen-zuzenean osotzen dau gaur egun indarrean dagoan Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala.

Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Plan honen lurralde-eremua Bizkaiko Lurralde Historikoa izango da, 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralean lez. Bertan, hain zuzen be, uri-hondakinen kudeaketa euren gain hartzen daben mankomunidadeak eta udalerrriak be hartzen dira kontuan.

Plangintza garatzen dauen plan honek Bizkaiko uri-hondakinak kudeatzeko ikuspegia proposatzen dau, eta, horretarako, aurrezaintzari emoten deutso lehentasuna eta denporeari begira modularrak diran jarduketa-proposamenak egituratzen dauz, zehaztutako helburuak bete egiten dirana bermatzeko.

Plan Integral honen iraupenari jagokonez, 2010. urtean hasi eta 2016. urtean amaituko da, eta, argitaratu eta editetan danetik, epealdi hori bat dator 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralaren amaieragaz.

3. AURREZAINZARAKO PLANAREN ZERGAITIA

Europa mailatik hasita, estadu-mailatik igarota eta lurralde-mailara helduta, erreferentziako agiriak eta arautegiak dagoz, eta argi eta garbi adierazo, bultzatu edo ikusten dabe aurrezaintzaren arloko politikak ezarri edo 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Plan hau lako planak egin behar dirana.

Holan, bada, kapitulu honetan adierazgarrienak azalduko dira, eta abiapuntutzat hartu dira plan hau egiteko orduan. Dana dala, agirikoa danez, ez da alde batera itxi agiri honek osotzen dauen 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala bera.

3.1. Europako Batzordeak hondakinen aurrezaintza eta berziklapenari buruz daukan estrategia tematikoa

Honako honeexek dira gaur egun EBn hondakinen arloan indarrean dagoan politikearen oinarriko helburuak: hondakinen sorrera gaitzea eta euren berrerabilpena, berziklapena eta berreskurapena bultzatzea, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko asmotan. Epe luzerako helburuaren arabera, hondakinak gaitu eta baliabide moduan darabilzan berziklapenaren gizartea izango da EB.

Luzaroan, maila guztietako politiken lehentasunezko xedea hondakinen aurrezaintza izan dan arren, ezer gitxi egin da egia bihurtu daiten.

Alde horretatik, Hondakinen Aurrezaintza eta Berziklapenari buruzko 2005eko abenduaren 21eko Estrategia Tematikoak neurri batzuk proposatzen dauz, zehaztutako helburuak beteteko eta ingurumenaren babes-maila zehatza lortzeko:

- ① Indarreko legeriaren ezarpen osoari beste bultzada bat emotea.
- ① indarreko legeria erraztea eta modernizetea.
- ① Hondakinen politikan bizi-zikloaren kontzeptua kontuan hartzea.
- ① Hondakinen **aurrezaintzaren** arloan asmo handiagoko politikak bultzatzea.
- ① Jakintzak eta informazioa ugaltzea, hondakinen aurrezaintzarako politikearen garapena babesteko.
- ① Berziklapenerako erreferentziako arautegi bateratua garatzea.
- ① Berziklapenaren politikea arretaz berregitea.

Neurri horreen bitartez, estrategia honek gaur eguneko jarduketetan eukiko ei dau eragina, eta, zabortegeaz aparte, hondakinak kudeatzeko aukera barriak sortuko ei dira. Hori dala eta, apurka-apurka aurrera egin ahal izango da hondakinak kudeatzeko sistemetako hierarkian. Honako honeexek izango ei dira eragin nagusiak:

- ① Isuritako hondakin gitxiago.

- ① Konpostgintza eta energia-berreskurapen gehiago.
- ② Berziklapen gehiago eta hobe.

Estrategia hau abian imini ostean lortuko ei diran onura eta eragin on ugarien artean, nabarmendu egin behar da hondakinen aurrezaintzarako politikea beste maila batzuetan betearazoko dala, ekonomia zein ingurumen arloko eraginkortasun ekonomiko handiena bermatuko dala eta hondakinaren sorlekutik hurren dagoan gunean bultzatuko dala ekintza.

Hondakinak aurrezaintzeko ahalmena faktore batzuen eraginpean dago (hazkuntza ekonomikoa, eragile ekonomikoek zer mailatan ezarri daben hondakinak gitxitzeko jarduera egokien kodea...). Europako strategiaren arabera, aurrezaintzarako politikea arrakastatsua izateko, bizi-zikloko faseetan hartutako erabagi praktikoetan euki beharko dau eragina: produktuaren diseinua, ekoizpena, kontsumitzailearentzako entregea eta erabilera. Uri-hondakinen sorreran, kontsumitzaileen jokabideak be badauka eraginik, eta, aldi berean, gizarte-egiturearen, diru-sarreraren eta gizartearen aberastasun-mailearen eraginpean dago jokabide hori.

Estrategia honetan, ez dira EBko hondakin-sorreraren helburu zehatzak ezarten. Helburu zehatzek ez dabe ingurumenaren gaineko eraginaren konplexutasuna kontuan hartzen: hondakinen pisua jatsi arren, ingurumenean daukien eragina handitu egin daiteke. Bestetik, pisu-murrizketak txikiak izan arren, ingurumenaren gaineko eraginaren murrizketak handiak izan daitezke. Horrezaz gainera, aurrezaintza-politikeak ekoizpen zein kontsumo egiturak, aurreikusitako bilakaera eta hazkuntza ekonomikoagaz daukien loturea hartu behar dauz kontuan.

Estrategiak hondakinen aurrezaintzarako ikuspegi koordinatua ezarten dau, eta ingurumenaren gaineko eragina gitxitzea dauka helburu. Era berean, politika nazionaletarako esparrua be ezarri egiten dau. Hondakinen aurrezaintzarako jarduketak gobernantza-maila guztietan imini behar dira abian.

Aurrezaintza-neurri gehienak, ostera, estatu, **eskualde** edo **toki** mailan hartu beharko dira, eta, bertan, aurrezaintzarako helburu zehatzak hartu beharko dira kontuan.

3.2. Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua

Zuzentarau batzuk indar barik ixteko asmotan, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2008ko zementziaren 19an Hondakinei buruz emondako 2008/98/EE Zuzentaruaren, behar besteko neurriak ezarten dira, ingurumena eta giza osasuna babesteko. Horretarako, hondakinen sorreraren zein kudeaketaren ondorioz sortutako eragin kaltegarriak **aurrezaindu** edo gitxitu behar dira, hondakinen erabileraren ondorioz sortutako eragin orokorrak gitxitu behar dira eta erabilera horren eraginkortasuna hobetu behar da.


Hondakinei buruzko Esparru Zuzentaruaren arabera (HEZ), substantzia, materiala edo produktua hondakin bihurtu baino lehen honako haxe gitxitzeko hartutako neurrien moltsoa da "aurrezaintza":

- a) hondakinen kopurua, produktuak berrerabilita edo produktuen bizitza teknikoa luzatuta be bai;
- b) hondakinen sorrerak ingurumenean eta giza osasunean eragindako ondorio kaltegarriak; edo

c) material eta produktuetako substantzia kaltegarriak.

Era berean, bertako 4. artikuluan, honako hierarkia hau ezarten da hondakinak kudeatzeko sistemetan, eta lehenetsun hurrenkeratzen hartuko da hondakinak aurrezaintzeko eta kudeatzeko legerian zein politikan. Hierarkia hori 1. irudian dago irudikatuta.

1. irudia. Hondakinei buruzko Esparru Zuzentzarauan hondakinak kudeatzeko zehaztutako hierarkia.



Bestetik, bertako 29. artikuluan xedatzen da derrigorrezkoa dala hondakinaren aurrezaintzarako egitasmoak zehaztea. Egitasmo horreek hondakinaren kudeaketarako aurreikusitako planetan edo ingurumen-politikako beste egitasmo batzuetan egon beharko dira txertatuta, kasuan-kasuan, edo, ostantzean, egitasmo bereziak izango dira.

Egitasmo horreetan, hondakinaren aurrezaintzarako helburuak zehaztu beharko dira. Horri jagokonez, HEZeko IV. eranskinean azaltzen dira hondakinaren aurrezaintzarako neurrien adibideak:

Hondakinaren sorrerako esparru-baldintzetan eragina euki daikien neurriak

- ① Plangintza-neurriak edo beste tresna ekonomiko batzuk ezartea, hondakinaren erabilera eraginkorra bultzatzeko.
- ② Ikerketa eta garapena sustatzea, hondakin gitxiago daukiezan teknologia eta produktu garbiagoak lortzeko. Horrez gain, ikerketa eta garapenerako lan horreetako emaitzak zabaltea eta erabiltea.
- ③ Hondakinaren sorreragaz zerikusia daukien ingurumen-presinoen adierazle adierazgarri eta eraginkorrak egitea, hondakinaren sorreraren aurrezaintza maila guztietan bultzatu ahal izateko: produktuen erkaketa bateratuak, toki-agintarien jarduketak edo estatu-mailako neurriak.

Diseinu, ekoizpen eta banaketa fasean eragina euki daikien neurriak

- ① Ekodiseinua bultzatzea (modu sistematikoan, ingurumen-alderdiak produktuaren diseinuan kontuan hartzea, bere bizi-ziklo osoan zehar produktuaren ingurumen-portaera hobetzeko asmotan).
- ① Hondakinen aurrezaintzarako teknikei buruzko informazioa emotea, industriak eskuragarri dagozan teknika onenak ezarri daizan.
- ① Zuzentarau honen eta 96/61/EE Zuzentarauaren arabera emondako baimenetan hondakinen aurrezaintzarako betekizunak kontuan hartu daitezcan, agintari eskudunentzako prestakuntza antolatzea.
- ① Behar besteko neurriak hartzea, 96/61/EE Zuzentaraua ezarrita ez daukien instalazioetan hondakinik ez sortzeko. Holan bajagoko, ebaluazioak edo hondakinen aurrezaintzarako planak kontuan hartu leitekez neurri horreetan.
- ① Sentsibilizazio-kanpainak egitea, laguntza ekonomikoa emotea, erabagiak hartzeko laguntza emotea edo enpresei beste era bateko laguntza eskaintzea. Neurri horreek eraginkorrak izan daitezcan enpresa txiki zein ertainentzat egokituta dagozanean, eta ezarritako enpresa-sareen bitartez ezarten dira.
- ① Borondatezko hitzarmenak, kontsumitzaile eta ekoizleen arteko lan-taldeak edo arlokako negoziaketak lortzea, kasuan kasuko arlo komertzial edo industrialek hondakinen aurrezaintzarako planak edo helburuak ezarri edo hondakinak sortzen dabean produktuak edo bilgarriak zuzendu daiezan.
- ① Ingurumena kudeatzeko sistema egiaztagarriak sustatzea, EMAS eta ISO 14001 arauak kontuan hartuta.

Kontsumo eta erabilera fasean eragina euki daikien neurriak

- ① Tresna ekonomikoak ezartea; esate baterako, erosketak «garbiengaitiko» bizgarriak. Era berean, kontsumitzaileek derrigorrean egin beharreko ordainketa ezartea, oro har doarik emongo zan bilgarriko artikulua edo elementua erabilteagaitik.
- ① Jente guztiarentzako eta kontsumitzaile zehatz batzuentzako informazio eta sentsibilizazio kanpainak sustatzea.
- ① Etiketa ekologiko egiaztagarriak bultzatzea.
- ① Industriagaz hitzarmenak sinatzea; esate baterako, produktuei buruzko azterketa-taldeak antolatzea, produktuen politika integratuaren esparruan eratuakotako lakuak. Era berean, txikizkariakaz hitzarmenak sinatzea, hondakinen aurrezaintzari eta ingurumenean hainbesteko eraginik ez daukien produktuei buruzko informazioa emoteko.
- ① Sektore publikoaren eta enpresen erosketari jagoenez, lehiaketa eta kontratuetan ingurumen-arloko eta hondakinen aurrezaintzarako erespideak kontuan hartzea, Batzordeak 2004ko urriaren 29an ingurumen-erespideak kontuan hartzen dauzan kontratazino publikoari buruz argitaratutako eskuliburuaren arabera.
- ① Botatako produktu egokien edo euren osogaien berrerabilpena edo konponketa sustatzea, hezkuntzako, ekonomiako, logistikako edo beste era bateko neurrien bitartez: konponketa eta berrerabilpenerako zentro eta sareei laguntzea edo biztanle-entsidate handiko eskualdeetan sortzea, batez be.

3.3. 2008-2015eko Hondakinen Plan Nazional Integraua

Estrategia moduan, plan honek behar dan moduko gidea izan gura dau, hondakinen kudeaketa hobetzen daberen politika bereziak garatzeko orduan. Holan, bada, hondakinen sorrera gitxitu eta behar dan moduan tratau ahal izango dira, erkidego autonomo eta toki-erakundearen koordinaziopean.

Hondakinen Plan Nazional Integrauan (HPNIn) gitxitzeko, berrerabilteko, berziklatzeko, balorizetako eta ezabatzeke helburu bereziak zehazten dira, eta honako honeexen tratamendua hartzen da kontuan: etxeke hondakinak eta antzekoak, legeria bereziko hondakinak (erabilten ez diran pneumatikoak eta ibilgailuak, arriskutsuak, pilak eta metagailuak, tresna elektriko eta elektronikoak, eraikuntza zein eraispenerako hondakinak, lokatzak eta araztegiak), lurzoruko kutsatuak eta nekazaritzako zein industriako hondakin ez-arriskutsu batzuk.

Honako puntu honeetan zehazten dira planaren helburu orokorrak:

- ① Hondakinen sorreraren gaur eguneko hazkuntza-joera aldatzea.
- ① Legez kanpoko isuriak errotik desagerrarazotea. Isuria gitxitzea eta honako honeexek eraginkortasunez bultzatzea: aurrezaintza eta berrerabilpena, frakzio berziklagarriaren berziklapena eta berziklatu ezin dan hondakin-frakzioa balorizetako beste modu batzuk.
- ① Tratamendurako azpiegiturak osotzea eta lehendik dagozan instalazioen funtzionamentua hobetzea.
- ① Azpiegituren, enpresa kudeatzaileen eta hondakinen ekoizpen zein kudeaketaren arloko estadistika fidagarriak lortzea.
- ① Lehendik dagozan kudeaketa-sistemetan aldaketak bultzatzeko abian imini diran tresna ekonomikoak eta, batez be, fiskalak ebaluetea. Erkidego autonomo guztietan era harmonizatuan ezarri behar diran ala ez zehaztea.
- ① Hondakinen kudeaketako alderdi guztietan ezarritako I+G+b egitasmoak sendotzea, hau da, bilketa-sistemen egokitasuna aztertzea, tratamenduak hobetzea eta, sorreratik ezabapenera, kudeaketa-prozesu guztiak era integrauan ebaluetea.
- ① Hondakinek klima-aldaketan daukien zeresana gitxitzea eta, horretarako, gitxitzeko ahalmen handiena daukien neurriak ezartzea.

Modu berean, aurrezaintzagaz zerikusia daukien helburu kualitatibo eta kuantitatiboak be zehazten dauz, eta 1. taulan dagoz ikusgai.

1. **taulea.** 2008-2015eko Hondakinen Plan Nazional Integrago aurrezaintzaren helburuak.

| | HELURU KUALITATIBOAK | HELURU KUANTITATIBOAK |
|--------------------|---|---|
| AURREZAINZA | Etxeko uri-hondakinen sorrera lehen etapan egonkortzea eta, ostean, euren murrizketa lortzea. | 2012: 2006. urtearen aldean, ontzien hondakin-tonak gixitzea: %4. |
| | Ontzi-hondakinen kopurua eta kaltegarritasuna gixitzea. | Erabilera bakarreko boltsa komertzialak: <ul style="list-style-type: none"> • %50eko murrizketa 2010. urtetik aurrera. • Plastiko ez-biodegradagarriak ordeztuko eta apurka-apurka debekatzeko egutegia 2010ean indarrean egotea. |

Bestetik, honako neurri honeek hartuko dira, aurrezaintzarako zehaztutako helburuak bete ahal izateko:

- ① Ontziratze eta merkaduratzeko katean parte hartzen daben eragile ekonomikoak borondatezko hitzarmenak sinatzea (ontzigitzeak, ontziratzaileak eta merkatariak edo banatzaileak), ontzien eta ontzi-hondakinen aurrezaintza bultzatzeko.
- ① Aurrezaintzarako ekodiseinua sustatzea.
- ① Etxeko konpostgintza eta konpostgintza bateraturako egitasmoei jarraipena emotea eta zabaltzea.
- ① Kontsumitzaile, enpresa eta zerbitzuentzako informazio eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea, hondakinen sorrera handi edo txikiagoan daukien zeresana nabarmentzeko eta, batez be, ontzien hondakinak gixitzeko.

3.4. EAEko uri hondakinen plangintza eta kudeaketarako jarraibideak

Uri-hondakinen plangintza eta kudeaketarako jarraibideek Europako legeriak ezarritako prezeptu hierarkikoa hartzen dabe kontuan. Horren arabera, honako hauxe da hondakinak kudeatzeko lehentasunezko hurrenkerea: aurrezaintza, berrerabilpena, berziklapena, balorizetako beste eragiketa batzuk eta ezabapena.

EAEko uri-hondakinen plangintza eta kudeaketarako ereduak emotea da helburua, eta sei jarraibideren inguruan dago egituratuta:

- ① Eguneratutako jakintzatik, plangintza egokia egitea.
- ① EAEko gainerako politikakaz bat datorren hondakin-politikea garatzea.
- ① Uri-hondakinen kudeaketarako eredu barriak eta azpiegiturak bultzatzea, Europar Batasunak hondakinen arloan zehaztutako betekizunetara egokitze.
- ① Uri-hondakinen kudeaketako ingurumen-kostu guztiak barruratzea.
- ① Partaidetza eta prestakuntzarako eskema egokien bidez, herritarrak inpliketea.
- ① Uri-hondakinen kudeaketako barrikuntzan eta hondakinak balorizatu eta ustiatzeko teknologien ezarpenean eten barik aurrera egitea.

4. PLANAREN HELBURU DIRAN HONDAKINAK

4.1. UHen sailkapena Aurrezaintzarako Planean

Ur-hondakinen zehaztapena ez da oso argia Europa arloan. Bestetik, Hondakinen Isuriari buruzko 1999/31/EE Zuzentarauaren arabera, honako honeexek izango dira udal-hondakinak: *“etxe hondakinak eta, euren ezaugarri edo osoketagitik, etxe hondakintzat hartu daitezkezan beste era bateko hondakinak”*.

Bestetik, 10/1998 Legeko 3. artikuluaen arabera, honako honeexek izango dira uri-hondakinak: *“etxebizitza partikular, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutakoak eta arriskutsuak ez diran guztiak, beti be euren ezaugarri edo osoketagitik aurreko leku edo jardueretan sortutakoan antzekoak badira. Era berean, honako honeexek be izango dira uri-hondakinak: bide publikoak, berdeguneak, jolasguneak eta hondartzak garbitukeran sortutako hondakinak; etxe animalia hilak, altzariak, tresnak eta bertan behera itxitako ibilgailuak; eta eraikuntzako zein etxe konponketetako lan txikiak hondakinak eta obretako hondakinak”*. **2. taulan**, modu grafikoan azaltzen da 10/1998 Legean uri-hondakinei buruz emondako azalpena.

2. taulea. Uri-hondakinen sailkapena.

| | | | | |
|--|----------------------------------|---|---------------------------|-----------|
| Hementxe sortutakoak | Etxebizitza partikularrak | Etxeko hondakinak | EH | UH |
| | Dendak Bulegoak Zerbitzuak | Etxeko hondakinen antzekoak diran merkataritzako eta erakundeetako hondakinak | IMEHA | |
| Arriskutsuak ez diran guztiak, beti be euren ezaugarri edo osoketagitik aurreko leku edo jardueretan sortutakoan antzekoak badira | Jarduerak | Etxeko hondakinen antzekoak diran industriako hondakinak | IMEHA | |
| | Garbiketa | Bide publikoak Berdeguneak Jolasguneak Hondartzak | IMEHA | |
| | Itxikeria | Etxeko animalia hilak (IMEHA) Altzariak (EH) Tresnak (EH) Bertan behera itxitako ibilgailuak (IMEHA) | EH IMEHA | |
| | Eraikuntza eta etxe konponketak | Eraikuntzako lan txikiak Etxeko konponketetarako lan txikiak | EEH | |

UH = Uri-hondakinak. **EH** = Etxeko hondakinak. **IMEHA** = Industria, merkataritza eta erakundeetako hondakin asimilagarriak. **EEH** = Eraikuntza eta eraispeneko hondakinak.

Iturria. 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integrala.

Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralean lez, plan honetan be eutsi jako 1997-2001eko UHSKPIn erabilitako sailkapenari. Horri esker, hiru korrante handitan sistematizatu daitezke uri-hondakinak (UH): etxe hondakinak (EH); industria, merkataritza eta erakundeetako hondakin asimilagarriak (IMEHA); eta lan txiki zein etxe konponketetako

eraikuntza eta eraispeneko hondakinak (EEH). Edozelan be, UHtzat hartutako EEHak EEH guztien zati txiki bat baino ez dira, eta industriaren sektoretik datoz gehienak. EEHak eragile pribaduek batera eta bereizi barik kudeatzen dabezanez, praktikan ezinezkoa da lan txiki eta etxeko konponketetako EEHak era objektiboan zenbatzea. Frakzino horren ondorioz sortutako gorabeherak saihesteko, 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralak uri-hondakinak osotzen dabezan hiru korronteetatik bi baino ez daukaz helburu: EH eta IMEHA.

Halanda ze, plan honetan be honako hauxe hartuko da kontuan:

**Uri-hondakinak (UH) = Etxeko hondakinak (EH) +
Industria, merkataritza eta erakundeetako hondakin
asimilagarriak (IMEHA)**

4.2. Lehen eta bigarren mailako hondakinak

Ur-hondakin kudeaketarako doktrina bateratuaren garapena aurreratua izan daiten, 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integralak barrikuntza kontzeptuala hartu eban kontuan, lehen mailako hondakinak edo gordinak eta bigarren mailako hondakinak bereizi ebazalako.

Hori dala eta, II. UHKPIIn lez, Aurrezaintzarako Plan honen ondorioei begira:

- ① **Lehen mailako hondakinak** edo **hondakin gordinak** izango dira sortzaileetatik zuzenean batutakoak, hau da, osteko ezelako prozesupean egon ez diranak: sailkapena, banaketa edo berziklapena, konpostgintza edo balorizetako beste eragiketa batzuk.
- ① **Bigarren mailako hondakinak** izango dira lehen mailako hondakin tramentutegietan erreus moduan sortutakoak: ontziak banatzeko eta sailkatzeko lantegiak, materia organikoaren konpostgintza edo biometanizazinarako lantegiak, aurretramentutegi mekaniko biologikoak edo energia berreskuratzen daben erraustegiak.

5. UHen SORRERAREN BILAKAERA 2004. ETA 2009. URTEEN ARTEAN

Hurrengo taulan, Bizkaiko Hondakinen Behatokiak 2004-2009ko epealdian EH, IMEHA eta UHen sorreraren bilakaerari buruz batutako datuak azaltzen dira. Datu horreetan oinarrituta, plangintza honen zati handi bat egituratuko da.

3. taulea. 2004-2009an Bizkaian sortutako UH guztien bananketa.

| | 2004 (Tm/urte) | 2005 (Tm/urte) | 2006 (Tm/urte) | 2007 (Tm/urte) | 2008 (Tm/urte) | 2009 (Tm/urte) |
|------------------------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|
| ETXEKO HONDAKINAK (EH) | | | | | | |
| MOLTZOAN BATUTAKOA | 369.408 | 369.223 | 366.373 | 362.981 | 358.080 | 346.787 |
| GAIKA BATUTAKOA | 92.402 | 98.889 | 103.000 | 111.130 | 112.635 | 111.999 |
| Materia organiko ustelkorra | 194 | 376 | 272 | 436 | 862 | 661 |
| <i>Inausketak eta lorazaintza</i> | 194 | 376 | 272 | 436 | 862 | 661 |
| Papera/kartoia | 33.689 | 36.192 | 38.193 | 41.192 | 43.207 | 40.925 |
| Beirea | 18.786 | 19.278 | 19.097 | 22.256 | 23.534 | 24.608 |
| Ontzi arinak | 11.972 | 12.466 | 12.819 | 13.012 | 13.921 | 14.659 |
| Ontziak ez diran plastikoak | 1.580 | 1.541 | 1.049 | 1.444 | 1.603 | 1.683 |
| Ontziak ez diran metalak | 3.603 | 5.162 | 6.091 | 6.923 | 6.720 | 6.384 |
| Etxeko hondakin arriskutsuak | 141 | 216 | 152 | 101 | 193 | 180 |
| <i>Pilak</i> | 141 | 216 | 152 | 101 | 116 | 90 |
| <i>Gainerako arriskutsuak</i> | 0 | 0 | 0 | 0 | 77 | 90 |
| Nahastauak | 10.317 | 11.096 | 13.294 | 13.676 | 13.314 | 13.792 |
| <i>Oihalak</i> | 1.003 | 1.078 | 1.520 | 1.575 | 2.144 | 2.032 |
| <i>Egurra</i> | 9.314 | 10.018 | 11.774 | 12.101 | 11.170 | 11.760 |
| Tamainu handiko hondakinak | 12.120 | 12.562 | 12.033 | 12.091 | 9.283 | 9.108 |
| <i>Tamainu handiko gainerakoak</i> | 10.340 | 10.486 | 10.169 | 9.628 | 6.979 | 6.698 |
| <i>Lerro zuria eta marroia</i> | 1.336 | 1.541 | 1.229 | 1.852 | 1.823 | 1.643 |
| <i>Lerro grisa</i> | 444 | 535 | 635 | 611 | 481 | 767 |
| EHen BILKETA GUZTIRA | 461.810 | 468.112 | 469.373 | 474.111 | 470.715 | 458.786 |

| | 2004 (Tm/urte) | 2005 (Tm/urte) | 2006 (Tm/urte) | 2007 (Tm/urte) | 2008 (Tm/urte) | 2009 (Tm/urte) |
|--|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|-------------------|
| INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA ERAKUNDEETAKO HONDAKIN ASIMILAGARRIAK (IMEHA) | | | | | | |
| MOLTZOAN BATUTAKOAK | 83.243 | 80.323 | 82.707 | 85.967 | 75.727 | 62.254 |
| Hondakinen nahastea | 77.770 | 74.418 | 75.886 | 72.364 | 62.488 | 52.065 |
| Bide zein hondartzen garbiketa eta animalia hilak | 5.473 | 5.905 | 6.821 | 13.604 | 13.239 | 10.189 |
| GAIKA BATUTAKOAK | 131.891 | 117.650 | 120.489 | 136.011 | 123.041 | 105.995 |
| Materia organiko ustelkorra | 5.245 | 5.700 | 3.886 | 2.048 | 1.819 | 2.006 |
| <i>Inausketak eta lorazaintza</i> | 5.245 | 5.700 | 3.886 | 2.048 | 1.819 | 2.006 |
| Papera/kartoia | 72.416 | 70.813 | 79.714 | 90.884 | 77.027 | 61.815 |
| Beira | 7.136 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ontziak ez diran plastikoak | 2.086 | 1.930 | 1.867 | 2.269 | 2.378 | 1.912 |
| Ontziak ez diran metalak | 0 | 13 | 9 | 64 | 217 | 244 |
| Etxeko hondakin arriskutsuak | 866 | 714 | 710 | 753 | 637 | 614 |
| <i>Bateriak eta metagailuak</i> | 816 | 665 | 649 | 593 | 449 | 469 |
| <i>Fluoreszenteak</i> | 50 | 49 | 61 | 113 | 133 | 94 |
| <i>Gainerako arriskutsuak</i> | 0 | 0 | 0 | 47 | 55 | 51 |
| Nahastauak | 44.132 | 38.452 | 34.300 | 33.360 | 34.308 | 31.861 |
| <i>Oihalak</i> | 0 | 0 | 0 | 108 | 136 | 313 |
| <i>Egurra</i> | 44.132 | 38.452 | 34.300 | 33.252 | 34.172 | 31.548 |
| Tamainu handiko hondakinak | 10 | 28 | 3 | 6.633 | 6.657 | 7543 |
| <i>Lerro grisa</i> | 10 | 28 | 3 | 87 | 141 | 134 |
| <i>Tamainu handiko gainerakoak</i> | 0 | 0 | 0 | 6.546 | 6.516 | 7.409 |
| IMEHAen BILKETA GUZTIRA | 215.134 | 197.973 | 203.196 | 221.976 | 198.768 | 168.249 |
| EH+IMEHA GUZTIRA | 676.944 | 666.085 | 672.569 | 696.087 | 669.483 | 627.035 |

Iturria. Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokia.

5.1. EHen sorreraren bilakaeraren azterketa

Etxeko hondakinen (EHen) portaera 4. taulan azaltzen dan modukoa izan da 2004-2009ko epealdian, eta, bertan, epealdi horretako urteko aldaketa zein urte arteko batez besteko aldaketa dagoz ikusgai.

4. taulea. EHen sorrera gordinaren bilakaera. 2004-2009.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| EH guztira (Tm/urte) | 461.810 | 468.112 | 469.373 | 474.111 | 470.715 | 458.786 |
| Urteko aldaketa (%) | | %1,36 | %0,27 | %1,01 | -%0,72 | -%2,53 |
| Epealdiko urte arteko batez besteko aldaketa | -%0,12 | | | | | |

Iturria. Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokia.

Etxeko hondakinen sorrera gordina zeozertxu hazi da epealdi honetan 2007. urtera arte, orduan %0,72 jatsi dalako aurreko urtearen aldean; eta %2,53, 2008. eta 2009. urteen artean. 2004-2009ko epealdiko urte arteko batez besteko aldaketa %0,12 jatsi da, 2008. eta 2009. urteen artean sorrerak behera egin dauelako, batez be.

Datu horreen esangurearen erradiografia hobea eukiteko, oso egokia da epealdiko EHen per capita sorrerari buruzko datuakaz batera aztertzea.

5. taulea. EH guztien per capita sorreraren bilakaera. 2004-2009.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|--------|-------|--------|-------|--------|--------|
| EHen per capita sorrera guztira (kg/bizt/urte) | 407,6 | 412,0 | 411,8 | 415,4 | 410,6 | 398,0 |
| Urteko gehikuntza (%) | | %1,07 | -%0,05 | %0,87 | -%1,15 | -%3,06 |
| Epealdiko urte arteko batez besteko aldaketa | -%0,47 | | | | | |

Iturria. Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokia.

Hain zuzen be, 5. taulearen arabera, EHen per capita sorrera be gorantz egonkortu da 2007. urtera arte.

Halanda ze, datu horreen arabera ezin da erabagigarritasunez adierazo zergaitik jatsi dan EHen per capita sorrera 2008. eta 2009. urteetan, are gehiago ekitaldi horreetan eta epealdian zehar Bizkaiko biztanleen kopuruak gora egin dauela igarten danean.

Alde horretatik, beharbada krisi ekonomikoak berak kontsumoaren beherakadan eta hondakinen sorreraren jatsieran euki dauen eragina da errazoietako bat. Izan be, gogoan euki behar da 2008an eta 2009an sorrera gordinean eta EHen per capita sorreran jazotako jatsiera aurrezaintzarako politiken eraginaren ondorioa izan daitekeela, ontziratzaileen larregizko bilgarrien murrizketa edo kontsumitzaileek erosketa adimendunerako ezarritako erespideak lako alderdietan.

5.2. IMEHAen sorreraren bilakaeraren azterketa

Industria, merkataritza eta erakunde hondakin asimilagarrien (IMEHAen) portaera 6. taulan azaltzen dan modukoa izan da 2004-2009ko epealdian, eta, bertan, epealdi horretako urteko aldaketa zein urte arteko batez besteko aldaketa dagoz ikusgai.

6. taulea. IMEHA guztien sorrera gordinaren bilakaera. 2004-2009.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| IMEHA gordinak guztira (Tm/urte) | 215.134 | 197.973 | 203.196 | 221.976 | 198.768 | 168.249 |
| Urteko aldaketa (%) | | -%7,98 | %2,64 | %9,24 | -%10,46 | -%15,35 |
| Epealdiko urte arteko batez besteko aldaketa | -%4,38 | | | | | |

Iturria. Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokia.

IMEHAen sorrera gordinaren bilakaera nora ezekoa izan da, 6. taulan adierazoten dan lez. 2004-2009ko epealdiko urte arteko batez besteko aldaketak %4,38ko jatsiera esanguratsua euki dau, eta, horrezaz gainera, epealdi horretako gorakadak zein beherakadak be oso nabariak izan dira.

Aitatu dan lez, IMEHAen sorrera gordinaren bilakaerak aldaketa nabarmenak euki dauz, igoerak eta jatsierak bat-batekoak izan dira-eta. Hasiara batean, ezin da esan aldaketa horreek oso-osorik krisi ekonomikoaren ondorioz jazo diranik, jazotako beherakadak (2005ekoak eta

2008-2009koak) nahikoa urrunak diralako, hori errazoi bakarra dala zehatz-mehatz adierazo ahal izateko.

7. taulan, 2004-2009ko epealdiko IMEHAen per capita sorreraren bilakaera azaltzen da.

7. taulea. IMEHA guztien per capita sorreraren bilakaera. 2004-2009.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|--------|--------|-------|-------|---------|---------|
| IMEHAen per capita sorrera guztira (kg/bizt/urte) | 190 | 174 | 178 | 194 | 173 | 146 |
| Urteko gehikuntza (%) | | -%8,25 | %2,31 | %9,09 | -%10,84 | -%15,81 |
| Epealdiko urte arteko batez besteko aldaketa | -%4,70 | | | | | |

Iturria. Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokia.

Horren arabera, 2005eko eta 2008-2009ko sorrera-jatsierak 6. taulako sorrera gordinen jazotako beherakadak baino nabariagoak dirala esan daiteke.

Azterketa honetan, nabarmendu egin behar da IMEHAen per capita sorrera ez dala EHen per capita sorrera baizen esanguratsua. Izan be, etxeko hondakinen sorrera eta biztanle-kopurua proportzino zuzenean badagoz be, IMEHAen sorrera beste era bateko aldaeren eraginpean dago: industriak eskualdeko barruko produktu gordinen daukan pisua eta aztergai daukagun epealdiko jarduera, besteak beste.

5.3. UHen sorreraren bilakaeraren azterketa

Uri-hondakinen (UHen) portaera 8. taulan azaltzen dan modukoa izan da 2004-2009ko epealdian, eta, bertan, epealdi horretako urteko aldaketa zein urte arteko batez besteko aldaketa dagoz ikusgai.

8. taulea. UH guztien sorrera gordinaren bilakaera. 2004-2009.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|--|---------|---------|---------|---------|---------|---------|
| UH gordinak guztira (Tm/urte) | 676.944 | 666.085 | 672.569 | 696.087 | 669.483 | 627.035 |
| Urteko aldaketa (%) | | -%1,60 | %0,97 | %3,50 | -%3,82 | -%6,34 |
| Epealdiko urte arteko batez besteko aldaketa | -%1,46 | | | | | |

Iturria. Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokia.

Uri-hondakinetan, EH eta IMEHA kontuan hartzen diranez, euren portaera antzekoa da. Holan, bada, datu honeen portaera be nora ezekoa da, aztertutako sei urteetan jazotako gorakada zein beherakaden ondorioz.

Per capita sorrerari jagokonez, UHen portaera 9. taulan azaldutako datuen arabera izan da.

9. taulea. UH guztien per capita sorreraren bilakaera. 2004-2009.

| | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|--------|--------|-------|-------|--------|--------|
| EH + IMEHA per capita sorrera guztira (kg/bizt/urte) | 598 | 586 | 590 | 610 | 584 | 544 |
| Urteko gehikuntza (%) | | -%1,89 | %0,65 | %3,35 | -%4,24 | -%6,85 |
| Epealdiko urte arteko batez besteko aldaketa | -%1,80 | | | | | |

Iturria. Bizkaiko Foru Aldundiko Hondakinen Behatokia.

EHei begira holako adierazlea baizen adierazgarria ez bada be, UHen per capita sorrera uri-hondakinen sorreran elkarreragina daukien errazoi guztien isla argia da.

Bizkaian, uri-hondakinen per capita sorrera beherantz egonkortu da biztanleko eta urteko 550-600 kiloen inguruan, eta, eurretatik, 400-410 inguru jagokez per capita EHei. Hondakinen sorrera-maila horreek kontuan hartuta, Bizkaia inguruko herrialde europarretako batezbestekoan dago lekuratuta.

UH guztiak kontuan hartuta, IMEHAek EHe baino pisu gitxiago daukienez, 2005ean eta 2008-2009an korrante horretan aztertutako beherakadak leunagoak izan dira UHen kasuan, EHen portaera ez dalako hain noraezekoa izan. Hain zuzen be, UHen sorrerak 2005ean eta 2008-2009an eukitako beherakadak IMEHAenak baino txikiagoak dira.

6. AURREZAINZA 2005-2016ko BIZKAIKO URI HONDAKINAK KUDEATZEKO II. PLAN INTEGRALEAN

6.1. 2005-2016ko II. BUHKPIko printzipio estrategikoak

2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko II. Plan Integraleko ekintza, kudeaketa-proposamen eta azpiegitura guztiak 11 printzipio estrategikotan dagoz oinarrituta, eta, euren artean, sorrera aurrezaintzeko printzipioa dago.

Nazino Batuek hondakinak ahal danik eta gehien gitxitzeko helburua ezarri dauela eta EBk gero eta hondakin gehiago sortzeko gaur eguneko joera geldiarazotea eta ahal dan neurrian alderantzikatzea proposatu dauela kontuan hartuta, Plan Integralean argi eta garbi azaltzen da hondakinaren sorrera gitxitu behar dana. Horrezaz gainera, aurrezaintzarako ekintzak egituratzeko ahalegina egiten dau, gitxitzeko jarduketek tokian-tokian daukiezan muga barruan.

6.2. II. BUHKPIko aurrezaintzaren helburuak

6.2.1. Gitxitzeko helburuak

Bizkaiko Foru Aldundiak, lurralde historikoko uri-hondakinaren erakunde kudeatzaileakaz batera, BUHKPIIn ezarten dau eskari-mueta araberako honako murrizketa-ekintza honeek abian iminteko ahalegina egingo dauela:

- ① Lehen eta bigarren mailako eskarietako enpresa, erakunde eta alkarte sektorial nagusiakaz borondatezko hitzarmenak sinatzea:
 - Erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera bultzatzea eta, aldi berean, botateko plastikozko boltsen erabilera gitxitzea.
 - Produktu kontzentrauen edo ontzi betegarrietako produktuen salmentea sustatzea.
 - Ekoizleei eskatzea produktu-unidadeko lehenengo eta bigarren mailako ahal danik eta ontzi gitxien erabilteko, euren funtzionaltasuna edo berme higieniko sanitarioak galdu barik.
 - Hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarrien erabilera sustatzea.

- Herritarrentzat bultzatutako kontzientziarazino eta sentsibilizazio kanpainetan eragile laguntzaile moduan parte hartzea.
- Erakundeetan (udalak, osasun-laguntzarako zentroak, ikastetxeak...), enpresetan edo negozio-zentroetan, hondakinak kudeatzeko planak ezartea, honako eduki honeek kontuan hartuta:
 - ① Hondakinak auditoretza, ontzien zein bilgarrien hondakinak kontuan hartuta.
 - ① Hondakinak gitxitzeko plana, ontzien zein bilgarrien hondakinak kontuan hartuta.
 - ① Hondakinak sorlekuan bertan banatzeko eta zabortegira doazan hondakinak gitxitzeko egitasmoa, ontzien zein bilgarrien hondakinak kontuan hartuta.
 - Enpresei eta negozio-zentrotz laguntza teknikoa emotea, hondakinak kudeaketa eta murrizketarako planak ezarteko.
 - Hondakinak kudeaketaren arloan, ETE-entzako autodiagnostiko-materialak egitea eta neurri proaktiboak hartzea.
 - Hondakin kopuruaren eta muestearen arabera zabor-tasa aldagarriak ezarteko aukera aztertzea eta moltsoan egindako bilketa indartzea.
 - Informazioa tratetako eta kudeatzeko tresnak garatzea, hondakinak murrizketarako egitasmoen arrakastea ebaluatuko.
- ① Uri-hondakinak erakunde kudeatzaileakaz batera, Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresek eta dendek sortutako hondakinak zabor-tasa aldagarria ezarteko ordenantza eredugarria bideragarria dan eta, holan bajagoko, egin egin daitekean aztertzea.
- ① Eusko Jaurlaritzari eskatzea enpresa eta erakunde batzuentzat derrigorrezkoa izateko lehenengo eta bigarren mailako eskarietako hondakinak murrizketarako neurriak ezartea; esate baterako, hondakinak kudeatzeko eta gitxitzeko planak.
- ① Azken kontsumitzaileen hirugarren mailako eskariko hondakinak murrizketarako ekintzak ezartea, honako hauxe lortzeko:
 - Erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera bultzatzea.
 - Botateko erosketa-boltsak erabilteagaitiko gainordain berezia ezartea bideragarria dan aztertzea.
 - Produktu kontzentrauen edo ontzi betegarrietako produktuen kontsumoa sustatzea.
 - Dieta mediterranea bultzatzea, hau da, produktu fresko gehiago eta ontziraturako produktu gitxiago kontsumidutea, higieak, osasun publikoak eta herritarren autonomiaren garapenak inposaturako mugak kontuan hartuta.
 - Erabili eta itzultzeko edo berrerabilteko ontzietako edarien kontsumoa sustatzea. Edozelan be, kasurik kasu baieztu beharko da berrerabilpenak berziklapenak edo berreskurapen energetikoak baino ingurumen-abantaila handiagoa daukana. Horretarako, bizi-zikloaren kasuan kasuko azterketak egingo dira (BZA).

- Hezkuntza arautuan, material didaktikoak eta laguntza-egitasmoak garatzea eta hondakinen aurrezaintza zein berziklapenagaz zerikusia daukien lanentzako sariak atontzea.
- ① Herritarrak hondakinen sorreraren aurrezaintzaren eta berziklapenaren inguruan sensibilizatu eta kontzientzietako kanpainak egitea. Horretarako, AURREZIKLAPENA kontzeptua zabaltzea (AURREzaintza+berZIKLAPENA), egokiak diran ekimenen bitartez.
Aurrezaintzaren arloko komunikazio-ekintzakaz batera, etxeko hondakin zehatzak banan-banan batzeko guneak egokituko dira: etxeko hondakin arriskutsuak, tresna elektriko eta elektroniko txikiak eta erropa, oihal eta oinetakoen hondakinak. Azken horreei jagokenez, berreskuratu daitekean moltsoa izankeran garrantzitsuak diranez, oihalezko materialerako egitasmo zehatzen bitartez sendotuko dira honako jarduketa honeek: gaikako bilketa, berrerabilpena eta berziklapena.
- ① Toki Agendak 21 prozesuen bitartez, udal-esparrua erabiltea, tokian-tokian hondakinen aurrezaintzarako eta kontsumo-ohituren aldaketetarako ekintzak bultzatzeko.

6.2.2. Berrerabilteko helburuak

Hondakinak gitxitzeko orduan, hondakin bihurtu daitezkezan produktuak eta tresnak berrerabiltea oso lagungarria denez, aurrezaintzaren eta ingurumen-lehentasunaren arloan sartzen da, hondakinen kudeaketarako estrategia bateratuaren berrikuspenaren arabera.

Alde horretatik, Plan Integralak honako jarduketa honeek bultzatuko dauz berrerabilpenaren arloan:

- ① Eukitzaileak bota gura dauzan produktu eta tresnei jagokenez:
 - Tamainu handiko hondakinen bilketa banatua sustatzea: LZEE, LMEE, altzariak, era guztietako tresnak...
 - Erabilitako artikulak eta tresnak erreskatau, konpondu, zaharbarritu eta saltzen dabean irabazi-asmo bako alkarte eta erakundeei laguntzea.
 - Erabilitako tresnak saltzeko mekanismoak eta zirkuituak garatzen laguntzea (azokak, azoka txikiak...).
 - Etxean erabilitako produktuak salerosten dabean enpresen zabalkundeetan laguntzea.
- ① Ontzi eta bilgarriei jagokenez –bizi-zikloaren azterketaren bitartez (BZA) kasuz kasu baieztu ostean–, hasiera batean berrerabilpenaren ingurumen-lehentasuna onartzen da oro har. Hori dala eta, muga tekniko, sozial eta ekonomikoei kalterik egin barik, honako hauxe lortzeko hitzarmenak sustatuko dira inplikautako sektoreen artean:
 - Erabilera bakarrekoak barik, hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriak erabiltea: metalezko edo, ahal dala, plastiko berziklatuzko azpilak, egurrezko paletak, ahal dala plastiko berziklatuzkoak diran paletak...
 - Holan bajagoko, ontziratzaileek eta botilaratzaileek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarrien erabilera-zokoei eustea eta zabaltzea: freskagarriak, mahaiko ardaoa, sagardaoa, txakolina...

- Persona fisiko edo juridiko interesdunek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarriak batzea, garbitzea eta merkaduratzea: cava-botilak, sagardao-botilak, ardao-botilak...

6.3. Komunikazioa eta herritarren sentsibilizazioa

II. BUHKPI ezarrikeran, herritarren komunikazio eta sentsibilizaziorako ekimena imini zan abian, Uri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala jakitera emoteko. Bertan, hain zuzen be, 4 ardatz nagusi egozan, eta, euren artean, honako hauxe egoan: “*uri-hondakinen sorreraren ustezko gorakadari aurre egiteko aurrezaintza*”.

6.3.1. Hondakinaren sorreraren gorakadari aurre egiteko aurrezaintza

Estrategia bateratua hondakinak kudeatzeko lehentasun hierarkikoaren printzipioan dago oinarrituta: lehenengo eta behin, aurrezaintza; ostean, hondakinaren balorizazioa (berrerabilpena, berziklapen materiala eta energiaren berreskurapena kontuan hartuta); eta azkenik, isurien bidezko hondakin-ezabapena.

Hondakinaren aurrezaintzak lotura estua dauka baliabideen erabileraren eraginkortasunaren hobekuntzagaz, kontsumo-ohituren bilakaeragaz eta produktuen ekoizpen, erabilera zein ezabapen zikloan hondakinak murrizteko prozesuagaz. Horren ondorioz, hondakinaren aurrezaintzarako edozein ekimenek iturrian bertan euki behar dau lehenengo eragina. Halanda ze, baliabide gitxiago erabili behar dira, kontsumoa gitxitu behar da, produktuen bizitza tekniko luzatzeko modua topau behar da eta baliabide gitxiago kontsumiduten dabezan produktu eta zerbitzuetarantz orientau behar da kontsumitzaileen eskaria.

Sorrera-gehikuntza handienak IMEHAetan jazoten dira, eta, horrezaz gainera, berziklapen-tasak handitzeko daukien ahalmena EHena baino askoz handiagoa da. Plan Integralak, gainera, tokian tokitik eskuragarria dan eskariaren arlora mugatzen dauz batez be ontzien eta bilgarrien murrizketarako jarduketak. Datu horreek oso kontuan hartu behar dira, epe ertain eta luzerako komunikazio-estrategia garatzeko orduan.

6.3.1.1. Helburuak

- ① Gizartea uri-hondakinaren zein asimilagarrien gorakadaren arazoaren eta ingurumenaren daukien eraginaren inguruan sentsibilizetea.
- ① Herritarren partaidetza bultzatzea, euren hondakinaren sorrera gitxitzeko.
- ① Bizkaiko Aldundiak arlo horretan euki dauzan helburuen eta lorpenen barri emotea.

7. PLANAREN HELBURU NAGUSIAK URI HONDAKINEN AURREZAINZAREN ARLOAN

II. BUHKPIIn, biztanle-kopuruaren bilakaera historikoa eta prognosia azaltzen ziran. Hain zuzen be, prognosi bikotxa egiten zan, immigrazinoaren fenomenoaren kontuan hartu barik eta kontuan hartuta, beranduago agertu eta mugatuagoa izan arren, Bizkaian bertan be azaldu egin dalako.


Planean bertan, biztanle-kopuruaren prognosian oinarrituta, uri-hondakinen bihar-etziko sorreraren prognosia egiten zan, eta hondakinen sorrerarako aukera bi proposatzen ziran, urteko hazkuntza desbardinak kontuan hartuta:

- ① **Aukera egokia:** honen arabera, immigrazinoaren fenomenoak ez dau eragin handirik eukiko Bizkaian eta hondakinen sorreraren hazkuntza-tasak geldotu egingo dira euren aldaketa historikoen aldean, norabide berean bilakatuko diran fenomeno biren ondorioz: hondakinen sorreraren aldaketa errentagaz ase egingo da eta sorrera-tasak handitzeko erritmoak moteldu egingo dira, Europa, estatu, autonomia eta lurralde mailan hondakinen aurrezaintzarako abian iminiko diran politiken ondorioz eta, kontsumitzaile moduan, herritarrek hondakinen sorreraren aurrezaintzarako kontsumo-ohituren aldaketan daukien jarrera proaktiboaren ondorioz.
- ② **Aukera desegokia:** honen arabera, eragina moderatua baizen nabaria izango da Bizkaiko migrazino-saldoan, immigrazinoaren fenomenoaren ondorioz. Horrezaz gainera, aukera honetan, hondakinen sorreraren hazkuntza-tasak zeozertxu moteltzen badira be, euren aldaketa historikotik hurreago dagoan erara bilakatuko dira.

2009ko bagilean, 2005-2016ko II. BUHKPIren ohiko berrikuspina egin da, eta, bertan ikusitakoaren arabera, "immigrazinoa KONTUAN HARTZEN DAUEN" hipotesian biztanle-kopuruaren benetako bilakaera eta biztanle-kopuruaren prognosia erkatzen badira, egiaztatu egiten da bien arteko baterakuntza oso-oso nabarmena dana urteen joan-etorrian, 2008. urtera arte. Hori dala eta, berrikuspen horren arabera, II. BUHKPIIn immigrazinoa KONTUAN HARTUTA egindako prognosiak zuzenketa bako balioa dauka, etorkizunari begira, hau da, 2016. urtera arte holantxe proiektatu ahal izateko. Hori dala eta, 2016an Bizkaian 1.163.000 biztanle egongo dirala hartuko da kontuan.

Oinarri horren arabera, uri-hondakinen sorreraren helburu kuantitatiboak zehaztu dira. Izan be, **2. irudian** azaldu eta hurrengo parafoetan garatuko dira.

2. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren helburu nagusiak.



7.1. 2016rako HELBURU NAGUSIAK

7.1.1. 1. helburu nagusia: 1,13 kg/bizt/eguneko EH sorrerari eustea

Aurreko ataletan adierazo dogun lez, 2004-2009ko epealdiko EH-en per capita sorrera %0,47 jatsi da urte arteko batezbestekoari jagokonez, eta, etorkizunari begira, 2016ra arteko per capita sorreraren gehikuntza larregizkoa ez izatea proposatzen da. Batez be, urte arteko jatsiera 2008-2009ko beherakada handiaren ondorioa izan da, eta, oso-osorik ez bada be, gaur eguneko egoera ekonomikoagaz dauka zerikusia. Edozelan be, **2010-2016ko epealdian EH-en per capita sorrera inondik inora ez handitzea da helburu nagusia**, hau da, 2008ko ratioei eustea. Hori guztiori **10.** taulan dago irudikatuta.

10. taula. UH-en sorrera gordinaren eta per capita sorreraren aldaketaren bilakaera historikoa eta bihar-etziko prognosia.

| URTEA | Epealdia | Bizkaiko biztanleak | EH-en per capita sorrera (kg/bizt/urte) | EH-en sorrera (Tm/urte) |
|-------|----------|---------------------|---|-------------------------|
|-------|----------|---------------------|---|-------------------------|

| | | | | |
|------|---------------------|-----------|-----|---------|
| 2004 | Errealidadea | 1.132.861 | 408 | 461.810 |
| 2005 | | 1.136.181 | 412 | 468.112 |
| 2006 | | 1.139.863 | 412 | 469.373 |
| 2007 | | 1.141.457 | 415 | 474.111 |
| 2008 | | 1.146.421 | 411 | 470.715 |
| 2009 | | 1.152.658 | 398 | 458.786 |
| 2010 | Helburua | 1.149.000 | 411 | 471.774 |
| 2011 | | 1.152.000 | 411 | 473.006 |
| 2012 | | 1.155.000 | 411 | 474.237 |
| 2013 | | 1.157.000 | 411 | 475.059 |
| 2014 | | 1.159.000 | 411 | 475.880 |
| 2015 | | 1.161.000 | 411 | 476.701 |
| 2016 | | 1.163.000 | 411 | 477.522 |

Aurreko taulan azaldutakoa eta 2009ko bagilean egindako aurreikuspena kontuan hartuta, 2016rako EHak 477.522 tonakoak izango dira, eta, data horretan, EHen per capita sorreraren ratioa 411 kg/bizt/urtekoa izango da, hau da, **1,13 kg/bizt/egunekoa**.

Nabarmendu egin behar da 2008ko ratioari eutsi jakola, oso gatxa dalako zehaztea 2009ko beherakada handia zer neurritaraino dan gaur eguneko egoera ekonomikoaren ondorioa edo aldundiak abian iminitako aurrezaintza-politiken ondorioa.

7.1.2. 2. helburu nagusia: 2016an 220.000 Tm/urteko IMEHa sorrera ez gainditzea

Proposatutakoaren arabera, 2008ko mailan oinarrituta (2009ko balioa alde batera itxiko dogu, lehen adierazotako errazoiengaitik), IMEHAen aldaketa apurka-apurka hazi behar da 20113. urtera arte, eta, orduan, %3koa izango litzateke. Urte horretan, hain zuzen be, korrante horren urteko aldaketa jasten hasiko litzateke, harik eta 2016. urtean gehikuntza %0,5ekoa izan arte.

Izan be, batetik, IMEHAen korrante barrien agerpena aurreratzen da, kontabilidade-erespide barriak ezarri ostean; eta bestetik, sorrera bera gitxitu egiten da, aurrezaintzarako politiketan aurrera eginkeran, Aurrezaintzarako Plan hau kontuan hartuta.

Hipotesi-moltso horren ondorioz, 2010-2016ko epealdiko IMEHAen sorrera apurka-apurka hazkuntza ekonomikotik aldentzea da helburu nagusia. Hori dala eta, Bizkaiko IMEHAen sorreraren bilakaera 11. taulan azaldutakoa izango ei da.

11. **taulea.** IMEHAen sorreraren bilakaera historikoa eta helburuak. 2004-2016.

| URTEA | Epealdia | Bizkaiko biztanleak | IMEHAen sorrera (Tm/urte) |
|-------|--------------|---------------------|---------------------------|
| 2004 | Errealidadea | 1.132.861 | 215.134 |
| 2005 | | 1.136.181 | 197.973 |
| 2006 | | 1.139.863 | 203.196 |
| 2007 | | 1.141.457 | 221.976 |
| 2008 | | 1.146.421 | 198.768 |
| 2009 | | 1.152.658 | 168.249 |
| 2010 | Helburua | 1.149.000 | 199.762 |
| 2011 | | 1.152.000 | 201.759 |
| 2012 | | 1.155.000 | 205.795 |
| 2013 | | 1.157.000 | 211.968 |
| 2014 | | 1.159.000 | 216.208 |
| 2015 | | 1.161.000 | 218.370 |
| 2016 | | 1.163.000 | 219.462 |

7.1.3. 3. helburu nagusia: 2016an 697.000 Tm/urteko UH sorrera ez gainditzea

Etxeko hondakinatarako eta industria, merkataritza eta erakunde hondakinatarako helburuak zehaztu ostean, uri-hondakinen sorreraren helburuak zehaztu behar dira. Hau da, EHen eta IMEHAen batura. 12. taulan, 2016ra arte aukeratutako helburuak agertzen dira.

12. **taulea.** UHen sorreraren bilakaera historikoa eta helburuak. 2004-2016.

| URTEA | Epealdia | Bizkaiko biztanleak | UHen sorrera (Tm/urte) |
|-------|--------------|---------------------|------------------------|
| 2004 | Errealidadea | 1.132.861 | 676.944 |
| 2005 | | 1.136.181 | 666.085 |
| 2006 | | 1.139.863 | 672.569 |
| 2007 | | 1.141.457 | 696.087 |
| 2008 | | 1.146.421 | 669.483 |
| 2009 | | 1.152.658 | 627.035 |
| 2010 | Helburua | 1.149.000 | 671.536 |
| 2011 | | 1.152.000 | 674.765 |
| 2012 | | 1.155.000 | 680.032 |
| 2013 | | 1.157.000 | 687.027 |
| 2014 | | 1.159.000 | 692.088 |
| 2015 | | 1.161.000 | 695.071 |
| 2016 | | 1.163.000 | 696.984 |

EH eta IMEHAetan jazoten dan lez, ezinbestekoa da aitatzeari 2008ko balioa hartu dala oinarritzat, oso-oso gaxa dalako adierazotea 2009ko beherakada zer neurritaraino dan gaur eguneko egoera ekonomikoaren ondorioa edo aldundiak abian iminitako aurrezaintza-politiken ondorioa.


Azkenik, aurreko paragrafoaren haritik, nabarmendu egin behar da helburu horreek zehaztueran 2005-2016ko II. BUHKPIIn egindako biztanle-prognosia hartu dala kontuan. Halanda ze, 2010-2016an biztanle-kopuruaren bilakaeran edozein aldaketa nabari jazo ezker, zuzenak ez diran interpretazioak egin daitezke, hiru helburu horreen betearazpena ebaluetako orduan. Hori guztiori dala eta, alderdi hori oso kontuan hartu beharko da helburuen betearazpena ebaluaueran.

7.2. HELBURUEN GARAPENA

Aurreko atalean, 2016ko Bizkaiko uri-hondakinen sorrerari begira plan honetan zehaztu diran hiru helburu nagusiak zeintzuk diran azaldu dogu. Edozelan be, helburu horreek beteteko, lurralde historikoko uri-hondakinen murrizketa bultzatzen daben lerro eta xede zehatzagoak ezarri behar dira.

Horretarako, bost lerro estrategiko zehaztu dira, eta, ingurumenaren zein hondakinen arloan daukazan eskumenen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak bete-betea landuko dauz, sortutako uri-hondakinen kopurua gitxitu ahal izateko. 3. irudian adierazoten dan lez, lerro estrategiko bakoetak xede zehatzagoak eukiko dauz, eta, euren arabera, era guztietako jarduketak zein ekintzak ezarriko dira.

3. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren egitura.



Holan, bada, xede eta jarduketen katea ezarrita, Aurrezaintzarako Plan honetan uri-hondakinen aurrezaintzarako ekintza zehatzen bilbea eskaintzen da, uri-hondakinen sorreraren murrizketan eragin zuzena eukiteko asmotan. Zehaztutako ekintzak ahal danik eta eraginkorrenak izan

daitezkan, eurretako asko aldiak aldiak (urtean behin, urte biko behin...) edo etenbakoak izango dira.

Era berean, nabarmendu egin behar da 2005-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean bertan be adierazoten zala Bizkaiko Foru Aldundiak, lurralde historikoko uri-hondakinaren erakunde kudeatzaileak batera, murrizketa-ekintza batzuk abian iminteko ahalegina egingo ebalda:

- ① Lehen eta bigarren mailako eskarietako enpresa, erakunde eta alkatere sektorial nagusiak borondatezko hitzarmenak sinatzea, helburu zehatz batzuk jadeteko.
- ① Uri-hondakinaren erakunde kudeatzaileak batera, Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresek eta dendek sortutako hondakinatarako zabor-tasa aldagarria ezarteko ordenantza ereduagarria bideragarria dan eta, holan bajagoko, egin egin daitezkan aztertzea.
- ① Eusko Jaurlaritzari eskatzea enpresa eta erakunde batzuentzat derrigorrezkoa izateko lehenengo eta bigarren mailako eskarietako hondakinaren murrizketarako neurriak ezartea.
- ① Azken kontsumitzaileen hirugarren mailako eskarietako hondakinaren murrizketarako ekintzak ezartea.
- ① Herritarrak hondakinaren sorreraren aurrezaintzaren eta berziklapenaren inguruan sentibilizatu eta kontzientzietako kanpainak egitea. Horretarako, AURREZIKLAPENA kontzeptua zabaltzea (AURREZaintza+berZIKLAPENA), egokiak diran ekimenen bitartez.
- ① Toki Agendak 21 prozesuen bitartez, udal-esparrua erabiltea, tokian-tokian hondakinaren aurrezaintzarako eta kontsumo-ohituren aldaketetarako ekintzak bultzatzeko.
- ① Eukitzaileak bota gura dauzan produktu eta tresnetarako ekintzak ezartea: tamainu handiko hondakinak...
- ① Ontzi eta bilgarriei jagokenez, hasiera batean berrerabilpenaren ingurumen-lehentasuna onartzea oro har.


II. BUHKPIIn uri-hondakinaren aurrezaintzarako zehaztutako jarduketak Aurrezaintzarako Plan honetan hartu dira kontuan, jarduketa barriak indartzeko eta zehaztutako aurrezaintza-helburuen lorpenerako ahalegin guztiak bideratzeko.

7.2.1. Lerro estrategikoak

Plan honen hiru helburu nagusiak garatzeko, bost lerro estrategiko zehaztu dira, eta, aldi berean, lerro horreek Bizkaiko Uri Hondakinaren Aurrezaintzarako Planaren jarduketetan landuko diran 5 ardatzak zehaztuko dabez:

- ① Bizimoduak aldatzea.
- ① Kontsumo-ohiturak aldatzea.
- ① Gaur eguneko ekoizpen-ereduan eragina eukitea.
- ① Beste kudeaketa-bide batzuk bultzatzea.
- ① Hondakinaren aurrezaintzarako arau eta administrazio arloko tresnak sortzea.

4. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren helburu nagusiak eta lerro estrategikoak.



4. irudian, helburu nagusiak eta lerro estrategikoak agertzen dira, eta, 5. irudian, lerro estrategiko bakoitzagaz lotutako xedeen laburpena agertzen da

5. irudia. 2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren lerro estrategiko bakoxtzagaz lotutako xedeak.

LERRO ESTRATEGIKO BAKOTXAGAZ LOTUTAKO XEDEAK

BIZIMODUAK ALDATZEA

- LE-1.A.** Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea.
- LE-1.B.** Informazio eta komunikazioaren teknologiek desmaterializazioari begira daukien ahalmena aztertzea.
- LE-1.C.** Kontsumitzaile arduratsuagoak izateko hezteak.

KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA

- LE-2.A.** Produktuen erabilera zentzunezkoagoa lortzeko hezteak.
- LE-2.B.** Konponketa, berrerabilpena eta alogera bultzatzea.
- LE-2.C.** Iturriko uraren kontsumoa sustatzea.
- LE-2.D.** Erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea eta, aldi berean, botateko plastikozko boltsen erabilera gixitzeak.

GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA

- LE-3.A.** Produktuetako substantzia toxikoak gixitzeak.
- LE-3.B.** Produktuetako material-kopurua gixitzeak eta lehengai berziklatuen erabilera sustatzea.
- LE-3.C.** Hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikautu dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea.

BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA

- LE-4.A.** Etxeetan hondakin organikoek etxeko konpostgintza bultzatzea.
- LE-4.B.** Ekoizleakaz batera, produktu eta material berrerabilgarrietarako merkaduen sorrera sustatzea.
- LE-4.C.** Ekonomia sozialaren sektoreagaz hitzarmenak bultzatzea.

ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA

- LE-5.A.** Uri-hondakinen aurrezaintzarako nazinoarteko ekimenetan parte hartzea.
- LE-5.B.** Uri-hondakinen toki-aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak bultzatzea.
- LE-5.C.** Erosketa eta kontratazino publiko berdea sustatzea.

7.2.2. Jarduketek plangintza

5. irudian aurkeztu diran lez, Aurrezaintzarako Plan honetan lortu beharreko 16 xede zehaztu dira danetara, hurrengo ataletan xehetasun handiagok garatuko diran jarduketek eta ekintza zehatzen bitartek.

Xede bakoxtxean, jarduketa bat edo batzuk ezarriko dira, eta xede hori lortzeko imini beharko dira abian. Aldi berean, jarduketa bakoxtxean, ekintza zehatzak be zehaztuko dira, 3. irudian irudikatzen zan lez.

Zehaztu eta garatu beharreko lanak ugariak diranez, aitatutako xedeetarako zehaztu diran jarduketek plangintza egitea erabagi da. Hain zuzen be, honako informazio-arlo honeek zehaztuko dira jarduketa bakoxtxerako:

- ① **Ekintzak:** jarduketa behar dan moduan garatzeko urrats edo mugarri zehatzak.
- ① **Maiztasuna:** jarduketa garatzeko denpora-tartea edo sarritasuna. Halanda ze, unadan unadakoa, etenbakoa, urtean behingoa, urte bian behingoa... izan ahalko da.
- ① **Alkarlana:** jarduketa garatukeran laguntzaileak izango diran beste sail batzuk edo beste era bateko erakundeak edo personak.
- ① **Arduraduna:** jarduketa eta bere ekintzak behar dan moduan beteten dirana egiaztetako saila edo persona.
- ① **Adierazlea:** jarduketaren betearazpen-mailearen jarraipenerako beharrezkoa dan adierazpidea edo tresna.

Lerro estrategiko, xede, jarduketa eta ekintzen bilbe hau guztia eta horreek guztiak irakurri eta interpretetako eta zelan garatu behar diran argi eta garbi geratzeko, jarduketa bakoetako "fitxa" egin da, eta, bertan, lehen aitaturako informazio-arlo horreek guztiak azaltzen dira.

Era berean, oso interesgarria da **I. eranskina** kontsultetea, bertan ekintza, jarduketa, xede eta lerro estrategiko guztien laburpen xehea eskaintzen da-eta.

8. LERRO ESTRATEGIKOAK ETA XEDEAK

8.1. 1. LERRO ESTRATEGIKOA: BIZIMODUAK ALDATZEA

Personek erabagiak hartzen dabezanean, ez dabez ezinbestean eraginkortasunean edo ingurumenaren osasunean oinarritutako erespideak kontuan hartzen. Batzuetan, lehenaldian egindakoa, eurek egin behar ei dabena, euren lagunek edo auzokoez egiten dabena edo modan dagoana baino ez dabe egiten.

Ontzi gitxiago daukazan beste batek ezaugarri berberak euki ahal dauzanean, ontzi eta bilgarri askoko elikagaia erostea norberaren erabagia da. Etxean erabilten diran garbigarriak, elikagaiak edo plastikozko boltsak aukeratukeran, ez dogu ezinbestean pentsetan zenbat hondakin sortuko diran eta zeinen arriskutsuak izan daitezkezan.

Hori guztiori dala eta, atal honetan zehaztutako jarduketek Bizkaiko biztanleen bizimoduetan euki gura dabe eragina, ahal dan neurrian uri-hondakinen sorrera gitxitzeko.

8.1.1. LE-1.A. xedea: kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea

Kontsumo materialean, ondasunak erabili edo kontsumidu egiten diranez, baliabideak kontsumidu eta hondakinak sortzen dira. Oinarritzko premina askori aurre egiteko, kontsumo materiala garatu beharra dago: janaria, erropea, etxebizitza eta azpiegiturak.

Bestetik, kontsumo inmaterial aratzenean, ez da ondasun materialik erabili behar. Dana dala, ezin da garatu harik eta lehen aitaturako preminei aurre egin arte. Edozelan be, kontuan hartutako arlo guztietan, premina ez-material horreei aurre egitea ondasun materialen erabileragaz lotuta egongo da beti, funtsean baliabideak badira be eta ez kontsumoaren helburua, hau da, preminei aurre egitea.

Halanda ze, kontsumo inmateriala ondasun materialakaz lotuta egongo da beti, kontsumo-prozesuan zeresan handirik ez badaukie be. Esate baterako, masaje-saio batean erabilitako masaje-orioa edo Vienako Orkestra Filarmonikoko lehenengo bibolin-joleen bibolinak. Izan be, 200 urtez helburu bererako erabili diranez, euren kontsumo materiala hutsala da, kontzertura doanaren ikuspegitik.

Ondasun inmaterialen eskaria infinituraino handitu daiteke, ingurumenari kalterik eragin barik eta lehendik dagozan baliabideak gitxitu barik.

Eskualde bateko erosketa bateraturako gaitasuna iraunkorra dala kontuan hartuta, ondasun inmaterialen eskaria handitu ezker, ondasun materialen eskaria zuzenean gitxituko litzateke. Zerbitzu sozial eta kultural moduan erabilitako ondasun inmaterialak inportau ezin diranez, eragin ona daukie ondasun horreek "ekoizten" dauzan eskualdeko lan-merkaduan.

Hori guztiori dala eta, preminei benetan aurre egitea eta, ondasunen ohiko kontsumoaren ordez, kontsumo inmateriala, hau da, aisialdiaren eta kulturearen kontsumoa bultzatzea da

xede honen helburua. Alde horretatik, honako jarduketa honeek zehaztu dira xede hori jadesteko:

- ① Kontsumo handieneko sasoietan hondakinen aurrezaintzarako kanpainak garatzea.
- ① Kontsumo inmaterialaren inguruko kanpainak bultzatzea.
- ① Kulturako ekitaldiak garatzeko orduan, foru eta udal instalazino guztien erabilera sustatzea.
- ① Ekitaldi publikoetan, produktu berrerabilgarrien erabilera bultzatzea.
- ① Foru-instalazinoetan txizoihalak erabilteko proba eredugarria sustatzea.
- ① CDak edo DVDak barik, USB memoriak erabiltea.

| 1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA | |
|--|---|
| XEDEA | Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea |
| Jarduketa | |
| LE-1.A-1 | Kontsumo handieneko sasoietan hondakinen aurrezaintzarako kanpainak garatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Sentsibilizazio-kanpainaren oinarritzko ezaugarriak zehaztea: norentzat dan, uri-hondakinen aurrezaintzan igorri beharreko ideak, mezua zer sistemaren bitartez igorriko dan... ① Aurretiaz beste kanpainaren bat dagoan zehaztea, bertan hondakinen aurrezaintzaren kontzeptuak kontuan hartu ahal izateko. ① Igorri beharreko ideen ezarpenerako adibideen zerrendea egitea. ① Uri-hondakinen aurrezaintzarako kanpainen eragin-mailea ebaluetea. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | - |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Planaren indarraldian uri-hondakinen aurrezaintzarako egindako kanpainen kopurua Per capita sortutako EHen kopuruaren aldaketa |

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|--|--|
| XEDEA | Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordeztuak, zerbitzuak erabiltea |
| Jarduketa | |
| LE-1.A-2 | Kontsumo inmaterialaren inguruko kanpainak bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Ingurumen-geletan, garbibusan... dagoan ikasmateriala aztertzea, bertan hondakinen aurrezaintzaren kontzeptua kontuan hartu ahal izateko. ① Aurrezaintzaren kontzeptua ezarri daben ingurumen-hezkuntzako instalazioak ezagutzeko jarduerak, txangoak eta ikustaldiak egitea. ① Kontsumo inmaterialari buruzko zabalkunde-materiala diseinetzea eta Bizkaiko ikastetxeetan banatzea. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Urtero zenbat ikaslerengan heldu dan kontsumo inmaterialari buruzko kanpaina |

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|---|--|
| XEDEA | Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea |
| Jarduketa | |
| LE-1.A-3 | Kulturako ekitaldiak garatzeko orduan, foru eta udal instalazino guztien erabilera sustatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Jarduera kulturalak garatzen dabezan eta garatu leikiezan foru-instalazino guztiak identifiketea. ① Bizkaian udal-mailan dagozan instalazino eta ekipamentu kultural guztiak identifiketea. ① Ekipamentu horreek guztiak hobeto erabiltea, urtean zehar agenda kultural zabala baizen osoa eskaintzeko. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiak Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Urtero foru-instalazinoetan egiten diran jarduera kulturalen kopurua Urtero Bizkaiko udal-instalazinoetan egiten diran jarduera kulturalen kopurua Bizkaiko foru eta udal instalazinoetan garatutako ekitaldietako parte-hartzaileen kopurua |

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|---|---|
| XEDEA | Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea |
| Jarduketa | |
| LE-1.A-4 | Ekitaldi publikoetan, produktu berrerabilgarrien erabilera bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako ekitaldi publikoetan zer material kontsumiduten diran gehien zehaztea. ① Holako materialen ordez, zerbitzu bera emon baina berrerabilgarriak diran beste material batzuk erabili daitekezan baloretea. ① Aukeratutako material baxterako hornitzaileak zehaztea. ① Hornitzaile horreek erosketa eta kontratazino publiko berderako erespideen arabera kategorizatea. ① Foru-erakundeak bultzatutako ekitaldi publikoetan, produktu berrerabilgarri horreek erabiltea. ① Bizkaiko toki-erakundeek euren ekitaldi publikoetan produktu berrerabilgarriak erabiltea. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila Kultura Saila Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Material berrerabilgarria erabili daben ekitaldi publikoen kopurua (eta biztanleen kopurua) |

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|---|--|
| XEDEA | Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordeztuak, zerbitzuak erabiltea |
| Jarduketa | |
| LE-1.A-5 | Foru-instalazioetan txizoiak erabilteko proba eredugarria sustatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Gizarte Laguntzarako Foru Institutuagaz proba eredugarri hori abian imintea bideragarria dan aztertzea. ② Proba eredugarria abian iminkeran, zer erakunde dan egokiena zehaztea. ③ Probearen jarraipena egitea. | |
| Maiztasuna | Unadan-unadan |
| Alkarlana | Gizarte Ekintza Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Foru-instalazioetan txizoiak berrerabilgarriak erabilteko proba eredugarriaren helburu izan diran lagunen kopurua Erakunde horreetako beharginen eta egoiliarren poztasun-maila |

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|---|---|
| XEDEA | Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea |
| Jarduketa | |
| LE-1.A-6 | CDak edo DVDak barik, USB memoriak erabiltea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Foru-kontratazioetan, hornitzaile guztiei eskatzea jakinarazpenak formatu elektronikoan egiteko eta txostenak zein agiriak paperean ez editetako, ezinbestekoa ez bada. ① Foru-erakundeko beharginei USB memoria bana emotea, ia-ia CDrik eta DVDrik ez erabilteko. ① Hornitzaileen komunikazioetarako USB memorien stocka eukitea, CD eta/edo DVDen erabilera ahal danik eta gehien gitxitzeko. ① Bizkaiko toki-erakundeei azaltzea zeinen abantailatsua dan holako gailu elektronikoak erabiltea eta euren erabilera bultzatzea. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | BFAk erositako USB memorien kopurua Foru-aldundian urtero erosten diran CD eta DVDen kopuruaren jarraipena |

8.1.2. LE-1.B. xedea: informazio eta komunikazioaren teknologiek desmaterializazioari begira daukien ahalmena aztertzea

Gizartearen digitalizazioa errealidadea da, baita hondakinen sorrera eta hondakinen aurrezaintzarako jarduketak ezarri beharra be. Edozelan be, informazio eta komunikazioaren teknologiak (IKT) oso lagungarriak izan daitezke, helburu batzuk beteteko orduan. Hain zuzen be, honako hauxe lortu daiteke IKT erabili ezker:

- ① Papera aurrezte.
- ① Energia aurrezte.
- ① Joan-etorriak aurrezte.
- ① Herri-administrazioetako azpiegiturretan aurrezte.

Xede honek prozesuen desmaterializazioa lortu gura dau funtsean. Hau da, paperean ez egonda be (prentsea, liburuak...), badago informazioa eskuratzerik eta informazioa formatu elektronikoan igorri, gorde eta suntsitzerik.

Bestetik, herri-administrazioarentzat oso abantailatsua izan daiteke, "administrazio elektronikoa" izan gura badau. Hau da, paperean dagozan espedienteak, fakturak, kontratuak,

botoak, jakinarazpenak... erabili beharrean, formatu elektronikoan euki daikiez. Era berean, posta bidezko komunikazio orokorra bera be formatu elektronikoan egin daiteke, fakturak paperean jaso beharrean (telefonoa, ura, gasa, elektrizitatea...).

Hori dala eta, IKTen erabileraren bitartez desmaterializazioa lortzeko, honako jarduketak honiek zehaztu dira plan honetan:

- ① Informazio eta komunikazioaren teknologien bitartez, foru eta udal arloko agiriaren desmaterializazioa bultzatzea.
- ② Bilboren ekimena kontuan hartuta, udal-wifiguneen ezarpenak sustatzea.

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|---|--|
| XEDEA | Informazio eta komunikazioaren teknologiek desmaterializazioari begira daukien ahalmena aztertzea |
| Jarduketa | |
| LE-1.B-1 | Informazio eta komunikazioaren teknologien bitartez, foru eta udal arloko agirien desmaterializazioa bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Foru-instalazioetan paperean editetan diran agiri guztiak identifikatea. ① Aurreko jarduketan identifiketako agiriak desmaterializatea bideragarria dan aztertzea eta IKT bidez egitea. ① Gida laburra egitea, udal-agiriak informazio eta komunikazioaren teknologien bitartez desmaterializetako prozesua sustatzeko, eta Bizkaiko toki-erakundeen artean banatzea. ① Barruko komunikazio guztiak formatu elektronikoan egiteko prozesua bultzatzea eta, ahal dan neurrian, paperik ez erabiltea. ① Fotokopiagailuek eta inprimagailuak alde bikotxaren funtzinoa daukiena ziurtatzea eta behargin guztiei funtzino horreen barri emotea. ① Foru-argitalpenetan, formatu elektronikoa bultzatzea eta paperean argitara emondako aleen kopurua gixitzea. ① Bizkaia Maitea aldizkaria formatu elektronikoan editatea, erabiltzaileek gura izan ezkeru, posta elektronikoz formatu horretan jaso daien. ① Sistema telematikoa bultzatzea, herritarrek foru-erakundeetan egin behar dabezan izapide guztiak garatzeko. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | <p>Desmaterializautako (paperean argitara emon ez diran) foru-agirien kopurua</p> <p>Foru-instalazioetan erabilitako paper-kopurua (urteko erkapena)</p> <p>Paperean editautakoen aldean, plan baktxean formatu elektronikoan argitara emondako aleen kopurua</p> <p>Bizkaia Maitea aldizkaria formatu elektronikoan jasoten daben lagunen kopurua (%)</p> <p>Herritarrek foru-erakundeagaz egin behar dabezan izapideen artean, zeintzuk egin daitezkan sistema telematikoaren bitartez (%)</p> |

| 1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA | |
|---|---|
| XEDEA | Informazio eta komunikazioaren teknologiek desmaterializazioari begira daukien ahalmena aztertzea |
| Jarduketa | |
| LE-1.B-2 | Bilboren ekimena kontuan hartuta, udal-wifiguneen ezarpenak sustatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaiko udalerrietan, wifiguneen instalazioa bultzatzea. ① Udalerriei wifiguneak imini daikiezala jakinarazotea eta hondakinen aurrezaintzari begira abantaila ugari lortu daikiezala azaltzea. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Wifiguneak imini dabezan udalerrien kopurua (eta biztanleen kopurua) |

8.1.3. LE-1.C. xedea: kontsumitzaile arduratsuagoak izateko hezte

Guztiak ondasunak eta produktuak kontsumiduten dabez. Kontsumoa eguneroko errealidadea da, eta guztiak bertan dagoz murgilduta. Modaren edo publizidadeko aginduen arabera era mekanikoan ez jokatzeko, kontsumoari eta kontsumiduten danari buruz hausnartzen kasi beharra dago. Era berean, behar besteko tresnak sortu behar dira, norberaren interesen arabera aukeratzeko eta norberaren gurari zein aukerei buruz errazoitzeke.

Hori dala eta, ezinbestekoa da gizarteari eta, batez be, gazteei tresna horreek emotea, kontsumidukeran euren erespideak garatzeko aukera euki daien. Kasu honetan, kontuan hartu beharreko gai eta urratsen barri emon gura dau foru-erakundeak, gizartean zentzun bako kontsumoaren inguruko kontzientzia bizteko. Herritarrek zentzunezko kontsumoaren abantailak zeintzuk diran jakin eta abian imini daien, honako jarduketa honeek aukeratu doguz:

- ① Foru-administrazioaren eta ikastetxeen artean, uri-hondakinen aurrezaintzari buruzko borondatezko hitzarmenak bultzatzea.
- ① Uri-hondakinen kudeaketarako ekintzei buruzko eskola-lehiaketak sustatzea.
- ① Kontsumitzaileen alkarteakaz batera, zentzunezko kontsumorako kanpainak bultzatzea.

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|--|---|
| XEDEA | Konsumitzaile arduratsuagoak izateko hezte |
| Jarduketa | |
| LE-1.C-1 | Foru-administrazioaren eta ikastetxeen artean, uri-hondakinen aurrezaintzari buruzko borondatezko hitzarmenak bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Gaur egun ingurumen-hezkuntzarako borondatezko hitzarmenak sinatu dabean ikastetxeak identifiketea (Eskola Agenda 21). ① Hitzarmen horreetan, beste langai bat gehitzea: uri-hondakinen aurrezaintza, alegia. ① Ikastetxe gehiagogaz hitzarmenak sinatu daitekezan aztertzea, ikasle gehiagorengana iritsi ahal izateko. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Ikastetxeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Hondakinen aurrezaintza kontuan hartzeko, gaur egun ikastetxeakaz sinatu diran hitzarmenen kopurua Beste ikastetxe batzuekaz egiteko asmotan, ikastetxeakaz sinatutako hitzarmen barrien kopurua |

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|--|--|
| XEDEA | Kontsumitzaile arduratsuagoak izateko hezte |
| Jarduketa | |
| LE-1.C-2 | Uri-hondakinen kudeaketarako ekintzei buruzko eskola-lehiaketak sustatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Aldian-aldian uri-hondakinen aurrezaintzaren arloan egingo dan lehiaketako oinarriak diseinetea. ① Zenbateko maiztasunaz egingo dan erabagitea. ① Bizkaiko ikastetxe guztiei lehiaketa horretan parte hartu daikiela jakinarazotea, foru-erakundeagaz hitzarmena daukien ala ez kontuan hartu barik. | |
| Maiztasuna | Zehaztu barik |
| Alkarlana | Ikastetxeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Hondakinen aurrezaintzari buruzko lehiaketan parte hartu daben ikastetxeen kopurua Plan honen indarraldian egindako aurrezaintza-lehiaketen kopurua |

1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA

| | |
|---|--|
| XEDEA | Konsumitzaile arduratsuagoak izateko heztea |
| Jarduketa | |
| LE-1.C-3 | Ikastetxeetan, konpostgintzaren ezarpena bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Sortutako konpostak zer ikastetxetan eukiko dauen urteera onena zehaztea. Adibidez: soloa daukien ikastetxeak, landa-inguruneetan dagozan ikastetxeak... ① Hasiera batean, ikastetxeentzat bertan sortutako konpostari urteera emotea erraza ez danean, hori lortzeko sistemak aztertzea eta diseinetzea: sortutako konposta gurasoei eskaintzea etxeko lorontzietan erabilteko... Horrezaz gainera, bere onarpena baloretea. ① Ikastetxeentzako egokiak diran autokonpostegiak aukeratzea. ① Udal eta mankomunidadeen bitartez, autokonpostegietarako dirulaguntza-sistemak eta hitzarmenak ezartea. ① Ikastetxeetan konpostgintzaz arduratuko diran beharginei prestakuntza emotea. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Ikastetxeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Konpostegiak daukiezan ikastetxeen kopurua Konpostegidun ikastetxeetan dagozan ikasleen kopurua |

| 1. LERRO ESTRATEGIKOA BIZIMODUAK ALDATZEA | |
|---|---|
| XEDEA | Kontsumitzaile arduratsuagoak izateko hezte |
| Jarduketa | |
| LE-1.C-4 | Kontsumitzaileen alkarteakaz batera, zentzunezko kontsumorako kanpainak bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaian lan egiten daberen kontsumitzaile-alkarte guztiak identifiketea. ② Alkarlan-hitzarmenak sinatzea eurakaz, zentzunezko kontsumorako kanpainak garatzeko. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundea |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren indarraldian zehar, kontsumitzaileen alkarteakaz batera zentzunezko kontsumoaren inguruan egindako kanpainen kopurua |

8.2. 2. lerro estrategikoa: kontsumo-ohiturak aldatzea

1987ko Bruntland Txostenaren arabera, honako hauxe sartzen da kontsumo iraunkorraren kontzeptuan: guztion jokabide arduratsuagoaren bidez –gizarte eta ingurumen arloko– desoreketarako urtenbide bideragarriak eskaini gura dabean ekintzen moltsoa. Batez be, kontsumo iraunkorra produktu eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa, erabilera eta ezabapenagaz lotuta dago, eta behar besteko baliabideak emoten dauz, euren bizi-zikloei buruz pentsetako. Hori dala eta, erkidego osoaren oinarritzko preminei aurre egiten jakena, larregikeriak gitxitzen dirana eta ingurumenari kalterik eragiten ez jakola ziurtatzea da bere helburu nagusia.

Alde horretatik, Bizkaitik Nazino Batuek kontsumo iraunkorrerako sustatutako eredua ezarten lagundu ahal izateko, xede berezi batzuk zehaztu dira. Hain zuzen be, honako hauxe bultzatzea daukie helburu: produktuen erabilera adimendunagoa, prestaketa, berrerabilpena eta alogera, iturriko uraren kontsumoa eta plastikozko boltsen erabileraren murrizketa.

8.2.1. LE-2.A. xedea: produktuen erabilera zentzunezkoagoa lortzeko hezte

Epe ertain eta luzera edozein ohitura aldatzeko oinarria da hezkuntza. Hori dala eta, xede honen bitartez, aldundiak gizarte osoari jakinarazo gura deutso egunez egun etxe, bulego, saltegi eta eskoletan erabilten dogun edozein produktu beste era batera erabili daitekeala benetan. Hori dala eta, komunikazio-kanpainak imini dira abian, produktuen erabilera adimendunagaz zerikusia daukien eguneroko jarduera ugariren barri emoteko.

2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA

| | |
|---|--|
| XEDEA | Produktuen erabilera zentzunezkoagoa lortzeko hezte |
| Jarduketa | |
| LE-2.A-1 | Produktuen erabilera adimendunagaz zerikusia daukien eguneroko jarduera ugariren barri emoteko komunikazio-kanpainak bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Eguneroko produktuen erabilera adimendunagaz zerikusia daukien ingurumen-jarduera ugariren barri emoteko gidea egitea. Adibidez: postontziko publizitatea zelan gitxitu, produktu berrerabilgarriak edo bilgarri gitxiagokoak erabilikeran lortutako abantailak... ① Taldeentzako kanpainak egitea, produktuen erabilera “adimendunari” buruzko informazioa emoteko. | |
| Maiztasuna | Urte bian behin |
| Alkarlana | - |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Produktuen erabilera adimendunari buruz egindako giden/kanpainen kopurua Produktuen erabilera adimendunari buruzko giden/kanpainen barri euki daberen kopurua |

8.2.2. LE-2.B. xedea: konponketa, berrerabilpena eta alogera bultzatzea

Produktuen bizitza tekniko luzeak lortzea hondakinen sorrera gutxitzeko edo aurrezaintzeko lehenengo estrategia da. Gizartean, “erabili eta botateko” ondasunek eta erosketen konpultsiboak gero eta zeresan handiagoa daukienez, produktuak jabetzeko eta konpontzeko eta partekatuta erabiltzeko kontsumo-eredurako bidea urratu behar da.

Halanda ze, xede honek edozein produktu berriraketa iraupena aldatzea dauka helburu. Horretarako, beharrezkoak ez diren produktuak konpondu, berrerabili eta dohaintzan emongo dira, bigarren bizitza euki daien.

Behar besteko urtenbideak zabaltzea da helburua, produktuak zaborretara ez botateko, mugaegunak begiratzeko, barria edegi baino lehen ontziak erabat hutsik dagozana ziurtatzeko, zaborretara bota baino lehen produktuak konpontzeko eta produktu berrerabilgarrien erabilera bultzatzeko. Honako honeexek dira arlo honetan garatuko diren jarduketak:

- ① Udal, eskualde edo mankomunitate mailan gidak egitea, etxeko era guztietako produktuak non konpontzen dabean azaltzeko eta udal-mailan “Konponketaren Egunaren” ospakizuna bultzatzeko.
- ① Bigarren eskuko artikuluak saltzen dabean dendei buruzko gidea egitea.

- ① Bizkaian alogeran dagozan artikuluei buruzko gidea egitea.

| 2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA | |
|--|--|
| XEDEA | Konponketa, berrerabilpena eta alogera bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-2.B-1 | Udal, eskualde edo mankomunidade maila gidak egitea, etxeko era guztietako produktuak non konpontzen dabezan azaltzeko eta udal-mailan “Konponketaren Egunaren” ospakizuna bultzatzeko |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① “Konponketarako Establezimenduen Gidearen” eredia diseinetea. ① Eredu horren bitartez konponketarako establezimenduen gidea egin daikiela eta erabagi hori oso abantailatsua dala jakinarazotea Bizkaiko toki-erakundeei. | |
| Maiztasuna | Urte bian behin |
| Alkaria | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Konponketarako argitaratutako giden kopurua Konponketarako gidak jaso dabezanen kopurua |

2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA

| | |
|--|---|
| XEDEA | Konponketa, berrerabilpena eta alogera bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-2.B-2 | Bigarren eskuko artikulua saltzen dabezan dendei buruzko gidea egitea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① “Bigarren Eskuko Artikuluak saltzen dabezan Denden Gidearen” eredu diseinetea. ② Eredu horren bitartez bigarren eskuko artikulua saltzen dabezan denden gidea egin daikiela eta erabagi hori oso abantailatsua dala jakinarazotea Bizkaiko toki-erakundeei. | |
| Maiztasuna | Urte bian behin |
| Alkaria | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Bigarren eskuko artikulua saltzen dabezan denden gidaren kopurua Bigarren eskuko artikulua saltzen dabezan denden gidak jaso dabezan kopurua |

2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA

| | |
|---|--|
| XEDEA | Konponketa, berrerabilpena eta alogera bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-2.B-3 | Bizkaian alogeran dagozan artikuluei buruzko gidea egitea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaiko Lurralde Historikoan alogadu daitezkezan era guztietako artikulua identifiketea. ② Bizkaian alogeran dagozan artikuluen gidea egitea. | |
| Maiztasuna | Urte bian behin |
| Alkaria | - |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Alogeran dagozan artikuluen kategorien edo mueten kopurua Artikulua alogaduten dabezan establezimenduen kopurua |

8.2.3. LE-2.C. xedea: iturriko uraren kontsumoa sustatzea

Botilaratutako uraren kontsumoa nabarmen zabaldu da herrialde guztietan, eta, gehienetan, hornikuntza publikoak kalidadeko edateko ura bermatzen dau. Halanda be, ontziratutako ur-botilea erosi baino lehen, ontziaren plastikoak eta garraioak ingurumenean eragiten daberen eragina hartu beharko litzateke kontuan.

Botilaratutako uraren kontsumoa kalidadeko iturriko ura daukien lekuetan be hazi egin danez, hondakinen kopurua handitu egin da eta baliabide zein energia asko gastetan dira, beharrezkoa ez bada be.

Botilaratutako ura kontsumo-lekuetara garraiatu behar da, eta, batzuetan, sorlekutik milaka kilometro dagoz. Bestetik, ura ontziratukeran, erregai ez-barriztagarriak be erabilten dira. Botila gehienak polietilen tereftalatoz eginda dagoz (PET), hau da, petroliotik eratorritako plastikozkoak dira.

Hurrengo urratsean, botilea bota beharra dago, barruko likido baliotsua edan ostean (holako ontzi gehienak zaborretara botaten dira). Hori dala eta, funtsezkoa da kontsumitzaileak kontzientzietea, eta, kasu honetan, iturriko uraren kontsumoa bultzatzea da helburua, ahal dala hondakintzat hartzen dan plastikozko botilarik ez sortzeko.

Holan, bada, honako jarduketa honeek garatuko dira xede hori lortu ahal izateko:

- ① Etxeetan iturriko uraren kontsumoa sustatzeko kanpaina.
- ① Foru-aldundiko erakunde eta jantoki guztietan iturriko uraren kontsumoa bultzatzeko kanpaina.

| 2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA | |
|--|--|
| XEDEA | Iturriko uraren kontsumoa sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-2.C-1 | Etxeetan iturriko uraren kontsumoa sustatzeko kanpaina |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Iturriko uraren kontsumoari buruzko kanpaina diseinetea biztanle guztientzat. ① Eguneko menuetan iturriko ura eskaintzea zeinen abantailatsua dan jakinarazotea eta horri buruzko informazioa emotea. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkaria | Ur Partzuergoa |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Iturriko uraren kontsumoari buruz egindako kanpainen kopurua Iturriko uraren kontsumoari buruzko kanpainen barri euki dabenen kopurua |

2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA

| | |
|--|--|
| XEDEA | Iturriko uraren kontsumoa sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-2.C-2 | Foru-erakunde eta jantoki guztietan iturriko uraren kontsumoa bultzatzeko kanpaina |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Iturriko uraren kontsumoari buruzko kanpaina berezia diseinetea foru-erakundeetako beharginentzat. ① Ahal dala, botilaratutako ur gitxiago erostea jantoki instituzionaletan. ① Egon balegoz, foru-erakundeetatik ura edateko makinak kentzea. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Foru-erakundeetan botilaratutako ura erosikeran egon dan aldaketa Foru-erakundeetan iturriko uraren kontsumoari buruz egindako kanpainen kopurua Iturriko uraren kontsumoari buruzko kanpainearen barri euki dabenen kopurua |

8.2.4. LE-2.D. xedea: erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea eta, aldi berean, botateko plastikozko boltsen erabilera gitxitzea

Plastikozko boltsek eragin handi-handia daukie ingurumenean. Izan be, energia-kopuru handia erabilten da boltsoak ekoizteko, eta, horrezaz gainera, petroliotik eratorritako substantzietz eginda dagozanez, mende erdi baino gehiago behar dabe degradetako.

Estadu Batuek eta Europar Batasunak munduko ekoizpenaren %80 kontsumiduten dabe, baina garapen-bidean dagozan herrialdeetan be kontsumoa orokortu egin danez, arazoa larriagotu egin da. Boltsoen ekoizleak eta banatzaileak alkartzen dauzan Cicloplasten arabera, Espainian urtero herritar bakoitzak plastikozko 238 boltsa kontsumiduten dauz batez beste (hau da, 97.000 tona baino gehiago).

Hori dala eta, Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Planaren bitartez, ahal dala, plastikozko boltsen kontsumoa gitxitzea da helburua, baita beste era bateko boltsa berrerabilgarrien erabilera bultzatzea be. Horretarako, honako jarduketa honeek garatuko dira:

- ① EAEko Uri Hondakinen Koordinazinarako Organoari plastikozko boltsak erroitik desagerrarazoteko ituna proposatzea.

- ① Erosketak egiteko orduan, erabilera bakarreko plastikozko boltsen ordez, oihalezko boltsen banaketa bultzatzea.

| 2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA | |
|---|--|
| XEDEA | Erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea eta, aldi berean, botateko plastikozko boltsen erabilera gixtitzea |
| Jarduketa | |
| LE-2.D-1 | EAeko Uri Hondakinen Koordinazinarako Organoari eskatzea honako honeexen artean plastikozko boltsen inguruko ituna ezarteko: organoa bera; hiru foru-aldundiak; Eusko Jauriaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila; eta inplikautako gainerako eragileak |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Hiru Lurralde Historikoetako hondakinak kudeatzeko planetan, holako hondakinak gixtitzeko zehaztutako helburuak identifiketea eta aztertzea. ① Plastikozko boltsen kopurua gixtitzeko itun/hitzarmenean kontuan hartu beharreko edukiak proposatzea. | |
| Maiztasuna | Unadan-unadan |
| Alkarlana | Gipuzkoako Foru Aldundia Arabako Foru Aldundia Eusko Jauriaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila Plastikozko boltsen kopurua gixtitzeko lan egiten daberen erakundeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Plastikozko boltsak errotik desagerrarazoteko ituna sinatu daberen erakundeen kopurua |

2. LERRO ESTRATEGIKOA KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA

| | |
|---|--|
| XEDEA | Erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea eta, aldi berean, botateko plastikozko boltsen erabilera gixtitzea |
| Jarduketa | |
| LE-2.D-2 | Erosketak egiteko orduan, erabilera bakarreko plastikozko boltsen ordeztu, oihalezko boltsen banaketa bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Kontzientziarazio-kanpaina garatzea, plastikozko boltsen erabilera gixtitzeko. ① Holako artikuluetarako hornitzaileen batez besteko hartu-emonean imintea eta banatu beharreko boltsa diseinetzea. Horrezaz gainera, kanpainako "leloa" boltsan bertan agertzea. ① Bizkaiko biztanleei jakinarazotea holako boltsak doarik eskatzeko aukera daukiela. | |
| Maiztasuna | Hiru urtean behin |
| Alkaria | - |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Banatuak oihalezko boltsen kopurua |

8.3. 3. lerro estrategikoa: gaur eguneko ekoizpen-ereduan eragina eukitea

Ohiko ekoizpen-ereduan, egunerik egunera sortutako zaborraren ordeztu lehengai barriak erabilten hasi dira, erazutako baliabideak botaten diranean, eta zaborretan dagozan baliabide materialak eta energia ezinbestean balorizatu behar diranean. Holan, bada, lehengai birjinak ordeztu ahal izango dira, energia eta baliabideak aurreztu ahal izango dira, ez da negutegi-efektuko gasik isuriko eta ez dira hondakin gehiago sortuko.

Hori dala eta, hirugarren lerro estrategiko honek gaur eguneko ekoizpen-prozesua barritu eta bertan euki gura dau eragina, funtsezko hiru alderdi kontuan hartuta. Batetik, produktuetako substantzia toxikoak gixtitzeko ahalegina egingo da.

Bigarrenez, ahalegin handia egingo da, produktuetako materialen kopurua gixtitzeko eta lehengai berziklatuak erabilteko. Azkenik, ahal dan guztia egingo da, hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikatu dagozan sektoreak hitzarmenak sinatzeko.

Edozelan be, aitatu egin behar da lerro estrategiko hau ezartzea oso-oso gatxa dala, Bizkaiko Foru Aldundiak arlo horretan daukazan eskumenak oso mugatuak diralako.

8.3.1. LE-3.A. xedea: produktuetako substantzia toxikoak gitxitzea

2010-2016ko Bizkaiko Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Plan honetan egindako apustua bete-betean indartu behar da, ikerketaren, garapenaren eta barrikuntzaren arloan. Behar bestekoa egin behar da, Bizkaiko etxeetan egunero erabilten diran produktuek ahal danik eta substantzia toxiko gitxien euki daien. Horren ondorioz, sortutako etxeko hondakinen arriskugarritasun-maila ez litzateke hain handia izango.

Holan, bada, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat beharrezkoa da I+G+b jarduerak suspertzea eta bultzatzea, ingurumenean ondorio kaltegarri gitxiago eragiten dabezan eguneroko produktuak ikertu ahal izateko.

| 3. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|--|--|
| GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA | |
| XEDEA | Produktuetako substantzia toxikoak gitxitzea |
| Jarduketa | |
| LE-3.A-1 | I+G+b jarduerak suspertzea eta bultzatzea, eguneroko produktu garbiagoak ikertzeko |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaian I+G+b-n bikainak diran zentroak identifikatea. ① Ingurumenaren arloko dirulaguntzen lerroan, uri-hondakinen aurrezaintzaren aldaera dirulaguntza jaso daiketan jardueratzat hartzea. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkaria | Ekonomia Sustapen Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Uri-hondakinen aurrezaintzaren arloko I+G+b ekimenetan, urtero zenbaterik jaso dabezan dirulaguntzak |

8.3.2. LE-3.B. xedea: produktuetako material-kopurua gitxitzea eta lehengai berziklatuen erabilera sustatzea

Jarduketa hau Bizkaiko enpresa-sarearentzat da zuzenean. Edozelan be, ontzien edo bilgarrien hondakinei jagokenez, foru-erakundeak ez dauka ezelako eskumenik ia-ia. Halanda ze, organo eskudunaren bitartez, enpresek gaur egun arlo horretan dagozan betebeharrak behar dan moduan beteten dabezana ziurtatzea beste zereginik ez dauka foru-erakundeak.

Horretarako, aldundiak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eskatuko deutso ontzien eta bilgarrien arloko indarreko legezko betekizunak behar dan lez beteten dirana ziurtatzeko. Hain zuzen be, behar dan moduko jarraipena egin daiala eskatuko jako, Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzeko eta betearazoteko Araudia onartzen dauen apirilaren 30eko 782/1998 Errege

Dekretua beteten dana ziurtatzeko. Bertan adierazotakoaren arabera, ontzi-kopuru bereziak gainditzen dabezan enpresek Ontzien Hondakinen Aurrezaintzarako Enpresa Plana aurkeztu beharko dabe.

| 3. LERRO ESTRATEGIKOA GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA | |
|---|--|
| XEDEA | Produktuetako material-kopurua gitxitzea eta lehengai berziklatuen erabilera sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-3.B-1 | Eusko Jaurlaritzari eskatzea hondakinen murrizketarako neurri batzuk derrigorrezkoak izan daitezala lehenengo zein bigarren mailako eskarietako erakunde eta enpresa zehatz batzuentzat |
| Ekintzak | |
| <p>① Eusko Jaurlaritzara idatzia bialtzea, Ontzien Hondakinen Aurrezaintzarako Enpresa Planak benetan egin daitezkan, enpresek sortu daikiezan ontzi-hondakinek Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzeko eta betearazoteko Araudia onartzen dauen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretuan zehaztutako kopuruak gainditzen dabezanean:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ 500 tona, beirea baino ez bada. ○ 100 tona, kaltzaidua baino ez bada. ○ 60 tona, aluminioa baino ez bada. ○ 42 tona, plastikoa baino ez bada. ○ 32 tona, egurra baino ez bada. ○ 28 tona, kartoia edo material konposauak baino ez badira. ○ 700 tona, material bat baino gehiago bada eta bakotxak banan-banan aurreko kopuruak gainditzen ez badauz. | |
| Maiztasuna | Unadan-unadan |
| Alkarlana | Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzeko eta betearazoteko Araudia onartzen dauen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua bete dan egiaztetako eskabidea Eusko Jaurlaritzara bialdu dan ziurtatzea |

8.3.3. LE-3.C. xedea: hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikauta dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea

Aurreko xedearen hari beretik, Bizkaiko Foru Aldundia zeozelan mugatuta dago, aitaturako arloan jarduteko. Dana dala, foru-erakundeak badauka alderdi gitxi batzuetan eragiterik.

Holan, bada, aurreko jarduketaren haritik, garatu beharreko honako jarduketa honeek zehaztu dira:

- ① Erabilera bakarrekoak barik, hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriak erabiltea.
- ① Holan bajagoko, ontziratzaileek eta botilaratzaileek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarrien erabilera-zokoei eustea eta zabaltzea: freskagarriak, sagardoa, txakolina...
- ① Persona fisiko edo juridiko interesdunek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarriak batzea, garbitzea eta merkaturatzea: cava-botilak, sagardao-botilak, ardao-botilak...
- ① Merkataritzako azalera handiakaz hitzarmenak ezartea, uri-hondakinak aurrezaintzeko.

Aurkeztutako jarduketak behar dan moduan interpretetako, honako hauxe argitu beharra dago ontziei eta bilgarriei begira, euren artean desbardinak diralako:

- ① **Ontzia edo lehen mailako bilgarria:** merkantzia gordeteko lekua da, eta produktua ikutzen dau zuzenean.
- ① **Bigarren mailako bilgarria:** era guztietako materialez egindako kaxak dira, eta, bertan, ontziratutako produktuak sartzen dira, zama, biltegiaketa edo garraio unidade handiagoa eratzeko. Kaxa-kartoiak edo kartoi ondulauzkoak izan daitezke, eredu bat gehiago dago eta oso gogorrak dira.
- ① **Hirugarren mailako bilgarria:** bigarren mailako bilgarriak metatzen dauz. Erabilienak palea eta eukiontzia dira.

| 3. LERRO ESTRATEGIKOA GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA | |
|--|--|
| XEDEA | Hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikauta dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-3.C-1 | Erabilera bakarrekoak barik, hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriak erabiltea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaiko ETE eta gainerako enpresetako arduradunentzako prestakuntza-saioa antolatzea, hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriak erabiltea zeinen abantailatsua dan azaltzeko. ② Bizkaiko Lurralde Historikoko ETE-ei hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriak erabilteko bizgarriak emotea. | |
| Maiztasuna | Urte bian behin |
| Alkarlana | Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazino Ganbera |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriei buruz egindako prestakuntza-saioen kopurua Hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriak erabilten dabezan enpresen kopurua |

| 3. LERRO ESTRATEGIKOA GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA | |
|--|--|
| XEDEA | Hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikauta dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-3.C-2 | Holan bajagoko, ontziratzaileek eta botilaratzaileek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarrien erabilera-zokoei eustea eta zabaltzea: freskagarriak, sagardoa, txakolina... |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Euren ezaugarrien eta merkadu-zokoaren arabera, beirazko lehen mailako bilgarri berrerabilgarriak erabili daiekizan produktuak identifikatea, oraindino holakorik egiten ez dabenean. ① Ekoizle horreei bizgarriak emotea, beirazko lehen mailako bilgarri berrerabilgarriak erabili daiezan. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Ecovidrio |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Identifikautako produktuen kopurua Foru-ekimenez, gaur eguneko bilgarriaren ordeaz beirazko lehen mailako bilgarri berrerabilgarriak erabilten dabezan produktuen kopurua |

| 3. LERRO ESTRATEGIKOA GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA | |
|--|---|
| XEDEA | Hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikauta dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-3.C-3 | Persona fisiko edo juridiko interesdunek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarriak batzea, garbitzea eta merkaduratzea: cava-botilak, sagardao-botilak, ardao-botilak... |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Biztanleentzako informazino eta sentsibilizazino kanpainak egitea eta produktu horreen kontsumoa nabarmen handitzen danean areagotzea. ② Era berean, produktu horreen ekoizleentzako kanpainak egitea, lehen mailako ontzi berrerabilgarriak garbitzeko eta merkaduratzeko. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Ecovidrio Nekazaritza Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Egindako informazino eta sentsibilizazino kanpainen kopurua |

| 3. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|--|--|
| GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA | |
| XEDEA | Hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikauta dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-3.C-4 | Merkataritzako azalera handiakaz hitzarmenak ezartea, uri-hondakinak aurrezaintzeko |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaiko azalera handietako arduradunakaz hartu-emonean imintea, arlo honetan zer eretxi daukien jakiteko eta arlo horretako jarduketak garatzeko aukeraren barri emoteko. ② Alkarlan-hitzarmena idaztea. Bertan, hain zuzen be, Bizkaiko Foru Aldundia bitartekaria izango da, hondakinen aurrezaintzarako ereduak diseinetako orduan: hondakinen sorreraren diagnostikoa, jarduketa-planen diseinua eta egindako jarduketen jarraipena. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | - |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Uri-hondakinen aurrezaintza lantzeko asmotan, zenbat azalera handigaz sinatu diran hitzarmenak |

8.4. 4. lerro estrategikoa: beste kudeaketa-bide batzuk bultzatzea

Azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegin handia egin dau, eta ekimen batzuk imini dauz abian, hondakinen kudeaketarako "beste" bide batzuk bultzatu daitezaz eta, hondakin bihurtu baino lehen, produktu horreek bigarren bizitza euki daien. Holan, bada, Berohi Soziedade Kooperatiboagaz garatutako alkarlana aitatu behar da (Rezikletak eta Caritasek osotzen dabe), eta, berzklontzi berezien bitartez, oihalezko hondakinak batzea dauka helburu (erabilitako erropea).

Era berean, soziedade mistoa be sortu da (Rezikleta, Emaus eta Garbiker), tamainu handiko hondakinak kudeatzeko.

Hona hemen ekimen horreen helburua: beste erabilera batzuk benetan euki daikiezan produktuak edo oraindino benetan berrerabili daitezkezan produktuak hondakinen ohiko kudeaketa-bideren batera ez iristea: balorizazioa edo ezabapena.

Laugarren lerro estrategiko honen bitartez, beste kudeaketa-bide batzuk bultzatuko dira, alternatiboak, beharbada, hainbat hondakinen bizitza teknikoari ahal danik eta atarramendu handiena aterateko. Holan, bada, azken urteotan Bizkaiko Foru Aldundiak zentzun horretan egin dauzan ekimen ugarien osogari, honako xede honeek be hartu behar dira kontuan.

8.4.1. LE-4.A. xedea: etxeetan hondakin organikoen etxeko konpostgintza bultzatzea

Frakzino organikoa uri-hondakinen %40 ingurukoa da Europan zein Bizkaian. Behar dan moduan tratau ezkeru, hondakinen kudeaketa iraunkorra areagotu ahal izango da. Lortutako konposta nekazaritzan eta ortuzaintzan erabili daiteke, zoruen emonkortasunari eusteko edo hobetzeko. Europako uri-guneetan, hondakin organikoak gaika batzeko sistema eta konpostegi asko dagoz. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurreikuspenen arabera, hondakin organikoen bosgarren berzicklontzia eta konpostegia iminiko dira.

2005-2016ko II. BUHKPIIn azaldutako apustu estrategiko hori ezarteko, herritarrak euren hondakinen tratamantuan inplikau behar dira, eta, horretarako, euskarri tekniko zein finantziarioa, informazioa eta hezkuntza-ekintzak imini behar dira abian. Hori dala eta, honako jarduketa honeek garatuko dira xede hau bete ahal izateko:

- ① Konpostgintzari buruzko prestakuntza-jardunaldiak bultzatzea, alderdi teorikoak zein praktikoak lantzeko.
- ① Landa-inguruneke udalerrietan edo familia bakarreko etxebizitza ugari daukiezan lekuetan autokonpostgintza bultzatzea.

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|--|--|
| BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
| XEDEA | Etxeetan hondakin organikoen etxeko konpostgintza bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.A-1 | Konpostgintzari buruzko prestakuntza-jardunaldiak bultzatzea, alderdi teorikoak zein praktikoak lantzeko |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Autokonpostgintza ezarri daikien eskualdeak edo guneak identifiketea: landa-inguruneak, familia bakarreko etxebizitzaren eremuak... ① Inguruan behar egiten daberen udaltalde, udal edo mankomunidadeetako ingurumeneko arduradun edo teknikariak hartu-emonean imintea, holako jardunaldiak egitea proposatzeko. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkaria | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Urtero konpostgintzari buruz egindako prestakuntza-jardunaldien kopurua |

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|--|---|
| BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
| XEDEA | Etxeetan hondakin organikoen etxeko konpostgintza bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.A-2 | Landa-inguruneko udalerrietan edo familia bakarreko etxebizitza ugari daukiezan lekuetan autokonpostgintza bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Landa-inguruneko udalerrietan edo familia bakarreko etxebizitza asko dagozan lekuetan autokonpostgintza bultzatzea. ② Autokonpostgintzaren arloan garatutako ekimenetarako euskarria eta koordinazioa eskaintzea. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkaria | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Urtero imini diran autokonpostegien kopurua Urtero etxeetan sortu dan konpost-kopurua |

8.4.2. LE-4.B. xedea: ekoizleakaz batera, produktu eta material berrerabilgarrietarako merkaduen sorrera sustatzea

Hondakinak banatukeran, materialen ziklo barriari emoten jako hasiera. Bertatik, hain zuzen be, berreskuratutako hondakinak material baxotza prestetako instalazioetara edo zuzen-zuzenean eraldaketa-industriara eroan behar dira, material berrerabilgarriak produktu barri moduan merkaturatu ahal izateko.

Holan, bada, merkaduak behar dan moduan badabilz, berrerabilpena errentagarria izan daiteke sektore batzuetan, energia asko aurreztu daiteke eta lanpostu barri ugari sortu daitezke.

Produktu berrerabilgarriak bultzatzeko, herritarrak kontzientzietako eta bultzatzeko egitasmoak egin daitezke, eta erkidegoak zein sektorea bultzatzen daben enpresek bertan parte hartu daikie. Izan be, oso garrantzitsua da jentek berrerabilpenaren oinarritzko printzipio batzuk ezagutzea: berrerabilpen-zirkuituaren ulermena, berreskuratutako materialen balioa eta merkaduek material horreek lekuratzeo daukien garrantzia.

Holan, bada, honako jarduketa honeek iminiko dira abian, xede hau behar dan moduan bete ahal izateko:

- ① Produktu berrerabilietarako merkaduak sustatzea.
- ② Etxean erabilitako produktuak salerosten dabezan enpresen zabalkundeetan laguntzea.

- ① Erabilitako tresnak saltzeko mekanismoak eta zirkuituak garatzen laguntzea (azokak, azoka txikiak...).
- ① Erabilitako artikuluak eta tresnak erreskatau, konpondu, zaharbarritu eta saltzen dabean irabazi-asmo bako alkarte eta erakundeei laguntzea.

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
|--|--|
| XEDEA | Ekoizleakaz batera, produktu eta material berrerabilgarrietarako merkaduen sorrera sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.B-1 | Produktu berrerabilietarako merkaduak sustatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Produktu berrerabilgarriak saltzen dabean enpresak, erakundeak edo entidadeak identifiketea. ① Aurreko jarduketaren ondoriozko zerrendea egitea. ① Honako honeexen Interneteko atarien bidez banatzea zerrendea: BFA, udalak, mankomunidadeak, Udalsarea 21... | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | - |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Identifikatutako produktu berrerabilgarriak saltzen dabean enpresa, erakunde edo entidadeen kopurua Zerrendea zenbat lekutan argitaratu dan |

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
|---|---|
| XEDEA | Ekoizleakaz batera, produktu eta material berrerabilgarrietarako merkaduen sorrera sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.B-2 | Etxean erabilitako produktuak salerosten dabean enpresen zabalkundean laguntzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Etxean erabilitako produktuak salerosten dabean enpresa bizkaitarrak topetea. ① Aurreko jarduketaren ondoriozko zerrendea egitea. ① Honako honeexen Interneteko atarien bidez banatzea zerrendea: BFA, udalak, mankomunidadeak, Udalsarea 21... | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | - |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Etxean erabilitako produktu identifikauak salerosten dabean enpresen kopurua Zerrendea zenbat lekutan argitaratu dan |

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
|---|---|
| XEDEA | Ekoizleakaz batera, produktu eta material berrerabilgarrietarako merkaduen sorrera sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.B-3 | Erabilitako tresnak saltzeko mekanismoak eta zirkuituak garatzen laguntzea (azokak, azoka txikiak...) |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bigarren eskuko artikuluetarako azokak eta azoka txikiak sustatzea aldian-aldian edo eten barik. ② Holako jardueren barri emotea biztanleei. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Udalak eta mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Urtero egindako bigarren eskuko azoken/azoka txikien kopurua Holako azokak egiten dabezan udalerrietako biztanle-kopurua |

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|---|--|
| BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
| XEDEA | Ekoizleakaz batera, produktu eta material berrerabilgarrietarako merkaduen sorrera sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.B-4 | Erabilitako artikulua eta tresna erreskatau, konpondu, zaharbarritu eta saltzen dabean irabazi-asmoko bako alkatere eta erakundeetara laguntzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Erabilitako artikulua eta tresna erreskatau, konpondu, zaharbarritu eta saltzen dabean irabazi-asmoko bako alkatere eta erakundeak identifiketea. ① Alkatere eta erakunde horreen zerrendea zabaltzea biztanleen artean. ① Eurakaz alkarlan-hitzarmenak sinatzea, eraginkortasun handiagoz behar egin daie eta, ahal dala, euren jarduketa-eremua handiagoa izan daite. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkaria | |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Zenbat alkatere laguntzen jaken erabilitako artikulua eta tresna erreskatau, konpondu, zaharbarritu eta saltzen Saltzeko asmatan, zenbat "hondakin" erreskatau, konpondu edo zaharbarritzen diran |

8.4.3. LE-4.C. xedea: ekonomia sozialaren sektoreagaz hitzarmenak bultzatzea

Bizkaia 21 Egitasmoan, adierazo egiten zan Bizkaiko Foru Aldundiak konpromiso zuzena daukala lanpostuen eta enpresa barrien sorreragaz eta, horretarako, sustatzaile barrietara lagundu eta lanerako prestakuntza bultzatuko ebala. Jarduketa horreen bitartez lana bultzatzen bada eta erakunde-jardura egokietarako (erakundeen gizarte-erantzukizuna) eta ingurumen-jardura egokietarako erespideak ezarten bada, iraunkortasun orokorra eta ekonomia iraunkorra sustatuko dira Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Alde horretatik, egoera txarrean dagozan taldeak laneratzea foru-erakundearen lehentasuna da, gizarte-bazterketari aurre egiteko orduan. Hori dala eta, Barrikuntza eta Ekonomia Sustapen Sailak, Lan eta Trebakuntza Sailak eta Gizarte Ekintza Sailak koordinatuta lan egin behar dabe.

Hain zuzen be, gizarte-ekimenen bidez ingurumen-ekintzak bultzatzeko ekimenak garatu dira, eta hemen proposatutako jarduketek be bide horretatik lan egiten segidutea daukie helburu:

- ① Tamainu handiko hondakinen eta beste hondakin batzuen biltzea banatua sustatzea (berrerabili ahal izateko): LZEE, LMEE, altzariak, era guztietako tresnak...
- ① Bizkaiko Elikagaien Bankuaren eta industriako, merkataritzako edo elikagai-banaketako erakunde handien arteko hitzarmenak bultzatzea.

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
|--|--|
| XEDEA | Ekonomia sozialaren sektoreagaz hitzarmenak bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.C-1 | Tamainu handiko hondakinen eta beste hondakin batzuen bilketa banatua sustatzea (berrerabili ahal izateko): LZEE, LMEE, altzariak, era guztietako tresnak... |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Tamainu handiko hondakinak eta beste hondakin batzuk batzeko sistemen barri emotea biztanleei. ② Tamainu handiko hondakinak eta beste hondakin batzuk banatuta batzen dabean erakundeakaz lan egitea. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Ekonomia Sustapen Saila Gizarte Ekintza Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Hondakinak batzen dabean erakundeakaz sinatutako hitzarmenen kopurua Hondakinak batzeko sistema horreek zenbat biztanlerengan heltzen diran |

| 4. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|---|--|
| BESTE KUDEAKETA BIDE BATZUK BULTZATZEA | |
| XEDEA | Ekonomia sozialaren sektoreagaz hitzarmenak bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-4.C-2 | Bizkaiko Elikagaien Bankuaren eta industria, merkataritza edo elikagai-banaketako erakunde handien arteko hitzarmenak bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaiko Elikagaien Bankuagaz batera, Bizkaiko industriako, merkataritzako edo elikagai-banaketako erakunde guztien zerredea egitea. ② Erakunde horren eta Elikagaien Bankuaren arteko alkarlan-hitzarmenak sinatzea, bankuak hornitzaile gehiago euki daizan. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Gizarte Ekintza Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Alkarlan-hitzarmenen kopurua Hornitzaile barriek urtero Bizkaiko Elikagaien Bankuari dohaintzan emondako elikagaien kopurua |

8.5. 5. lerro estrategikoa: arau eta administrazio arloko tresnak sortzea

Foru-aldundiak uri-hondakinen arloko eskumena daukanez, behar besteko tresnak ezarri daitezke, uri-hondakinen aurrezaintza bultzatzeko eta gizartearen zein beste eragile batzuen jarduketa bideratzeko.

Asmo horren gainetik, hausnartu egin behar da zelan jorratu alderdi hori eta erabagi egin behar da norantz zuzendu beha diran ahaleginak, lurralde historikoko uri-hondakinen aurrezaintzan emoitzak jadetsi ahal izateko. Alde horretatik, lau xede zehaztu dauz foru-aldundiak.

Hona hemen lanon helburuak: hondakinen aurrezaintzarako nazinoarteko ekimenetan parte hartzea, aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak bultzatzea, uri-hondakinen gaineko tasa bereziak sustatzea eta erosketa zein kontratazio publiko berdea bultzatzea.

8.5.1. LE-5.A. xedea: uri-hondakinen aurrezaintzarako nazinoarteko ekimenetan parte hartzea

Hondakinen Aurrezaintzarako Aste Europarra 2011. urtera arte Europako Batzordeko LIFE+ egitasmoaren laguntzaz egindako hiru urteko proiektua da. Hona hemen Aurrezaintzarako Aste Europarraren helburuak:

- ① Hondakinen murrizketarako estrategiak eta Europar Batasunak zein bertako estatu kideek arlo horretan daukien politika jakitera emotea.
- ① Europa osoan hondakinak gitxitzeko ekintza iraunkorrak bultzatzea.
- ① Eragileek egindakoa jakitera emotea hondakinen murrizketarako adibide zehatzen bitartez.
- ① Europarren eguneroko jokabidea aldatzen ahalegintzea (kontsumoa, ekoizpena).

2009ko ekitaldian, estaduko eta nazinoarteko erakunde askok bete-betean parte hartu dabe aste horretan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak bertan parte hartu gura dau hurrengo urteetan. Horretarako, honako xede bi honeek zehaztu dauz:

- ① ACR+ alkarterako atxikimendua bultzatzea (Association of Cities and Regions for Recycling and Sustainable Resource Management).
- ① Urtean behin egiten dan Hondakinen Aurrezaintzarako Aste Europarrean bete-betean parte hartzea.

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|---|--|
| ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
| XEDEA | Uri-hondakinen aurrezaintzarako nazinoarteko ekimenetan parte hartzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.A-1 | ACR+ alkarterako atxikimendua bultzatzea (Association of Cities and Regions for Recycling and Sustainable Resource Management) |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① ACR+ alkartearen lan-arloak aztertzea. ① Alkarteagaz hartu-emonean imintea eta Bizkaiko Foru Aldundiak bertan parte hartu gura dauela adierazotea. ① ACR+ alkartean atxikimendu formala egitea. ① Alkarteko lan-egitasmo eta jardueretan bete-betean parte hartzea, baina batez be, hondakinen aurrezaintzarako gaietan. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | BFA ACR+ alkartera atxikitzea Esparru horretan argitaratutako agirien kopurua |

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|---|--|
| ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
| XEDEA | Uri-hondakinen aurrezaintzarako nazinoarteko ekimenetan parte hartzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.A-2 | Urtean behin egiten dan Hondakinen Aurrezaintzarako Aste Europarrean bete-betean parte hartzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Hondakinen Aurrezaintzarako Aste Europarraren prestaketan parte hartzea. ① Hondakinen aurrezaintzarako jarduerak identifiketea eta bultzatzea, urtean behin egingo dan Hondakinen Aurrezaintzarako Aste Europarrean kontuan hartzeko. ① Astearen esparruan, Bizkaiko Hondakinen Aurrezaintzaren arloko jardunaldiak, ikastaroak eta berbaldiak bultzatzea. ① Hondakinen aurrezaintzarako jardueren betearazpena bultzatzea ikastetxe, foru-erakunde eta enpresen artean. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkaria | |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Aste Europarrean egindako aurrezaintza-jardueren kopurua |

8.5.2. LE-5.B. xedea: uri-hondakinen toki-aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak bultzatzea

Arlo administratiboari begira, Bizkaiko Foru Aldundia toki-erakundea bada be, biztanleentzat hurragokoak diran beste toki-erakunde batzuk be badagoz, eta, sarritan, euren bitartez garatzen diran ekimenek arrakasta-aukera handiagoak daukiez.

Hori dala eta, udalerrri guztietan Toki Agenda 21 ezarrita dagoala kontuan hartuta, esparru horretan bultzatuko dira uri-hondakinen aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak. Horrezaz gainera, aurrezaintzarako toki-jarduerak finantzetako lerroa be garatuko da honako jarduketa honeen bitartez:

- ① Material “eredugarriak” ezartea, toki-erakundeek euren hondakinen aurrezaintzarako kanpainetan erabili daiezan.
- ① Toki Agendak 21 prozesuen bitartez, udal-esparrua erabiltea, tokian-tokian hondakinen aurrezaintzarako eta kontsumo-ohituren aldaketetarako ekintzak bultzatzeko.
- ① Uri-hondakinen aurrezaintzarako proiektuak finantzetako dirulaguntza-lerroa sortzea.

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|--|---|
| ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
| XEDEA | Uri-hondakinen toki-aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.B-1 | Material "eredugarriak" ezartea, toki-erakundeek euren hondakinen aurrezaintzarako kanpainetan erabili daiezan |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Hornitzaileagaz zelako artikulua "eredugarriak" diseinatu eta zehaztu daitekezan ezartea, udalerriek edo toki-erakundeek euren logoak eta guzti banatu daiezan: kartelak, triptikoak, kamisetak, txapak... ② Bizkaiko toki-erakundeei euren hondakinen aurrezaintzarako kanpainetan holako materialak erabili daitezela azaltzea. | |
| Maiztasuna | Unadan-unadan |
| Alkarlana | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Euren aurrezaintza-kanpainetan holako "material eredugarriak" erabilikeran, ekimenagaz bat egin daben toki-erakundeen kopurua |

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|---|--|
| ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
| XEDEA | Uri-hondakinen toki-aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.B-2 | Toki Agendak 21 prozesuen bitartez, udal-esparrua erabiltea, tokian-tokian hondakinen aurrezaintzarako eta kontsumo-ohituren aldaketetarako ekintzak bultzatzeko |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Uri-hondakinen aurrezaintzarako toki-jarduketak bultzatzea, urtero garatutako dirulaguntza-lerroan aurrezaintza bera kontuan hartuta. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkarlana | Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Toki Agenda 21en esparruan urtero uri-hondakinen aurrezaintzarako garatutako jarduketaren kopurua |

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|---|---|
| ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
| XEDEA | Uri-hondakinen toki-aurrezaintzari buruzko informazio eta komunikazio kanpainak bultzatzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.B-3 | Uri-hondakinen aurrezaintzarako proiektuak finantzetako dirulaguntza-lerroa sortzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Bizkaiko Lurralde Historikoan uri-hondakinen aurrezaintzarako garatutako jarduketetarako dirulaguntzei buruzko dekretuaren zirriborroa diseinetzea. ② Urtero, dirulaguntza-lerro horretan zenbat inbertiduko dan erabagitea. | |
| Maiztasuna | Urtean behin |
| Alkaria | Udalak eta mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Uri-hondakinen aurrezaintzarako jarduketei diruz laguntzeko aurrekontua Urtero uri-hondakinen aurrezaintzarako garatutako jarduketaren kopurua |

8.5.3. LE-5.C. xedea: erosketak eta kontratazio publiko berdea sustatzea

Erosketa eta kontratazio publiko berdean, kontratu beharrekoko produktu, zerbitzu edo obren erespide ekonomikoak edo teknikoak ez eze, euren ingurumen-portaera be hartzen da kontuan, ondasunak eta zerbitzuak erosi edo kontratatuko orduan.

Ingurumen-alderdiak erabilitako edo erositako material eta produktuakaz, kontratuen betearazpenerako metodo eta prozedurakaz eta hornitzaile zein ekoizleen ingurumen-jokabideagaz dagoz lotuta.

Foru-aldundiak holako erosketak eta kontratazio iraunkorraren aldeko apustu irmoa egiten dauenez, oso interesgarria da alderdi hori Aurrezaintzarako Plan honetan sartzea, lotura zuzena daukalako administrazioak berak uri-hondakinen arloan garatutako aurrezaintzagaz. Horretarako, honako jarduketa honek zehaztu dauz:

- ① Behar besteko ereduak ezartzea, adibidetzat hartua izateko eta ingurumenari begira foru-administrazioaren erosketak zein kontratazioa behar lakoak izateko.
- ① Bizkaiko toki-erakunde eta gainerako herri-administrazioen artean, erosketak eta kontratazio publiko berdea bultzatzea.
- ① Foru-ekimenez egindako jarduketa guztietan, iraunkortasuna bultzatzea: argitalpenak, ekitaldien antolaketa, komunikazioak...

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
|--|---|
| XEDEA | Erosketa eta kontratazino publiko berdea sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.C-1 | Behar besteko ereduak ezartea, adibidetzat hartua izateko eta ingurumenari begira foru-administrazioaren erosketa zein kontratazinoa behar lakoak izateko |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Ingurumenari begira iraunkorra dan kontsumorako erespideak sustatzea eta jakitera emotea, Bizkaiko Foru Aldundiko sail eta zuzendaritzen jarduerak garatu eta abian iminteko. ① Erosketa publiko berdeetarako sistema garatzea. ① Energiaren eraginkortasun eta aurrezkiari begira, sail arteko ekintzak koordinatzea eta dinamizetzea. ① Ingurumenari begira iraunkorrak diran kontsumo-ohituren zabalkundea eta barruko komunikazinoa bultzatzea. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Iraunkortasun-erespideen arabera egindako kontratazino eta erosketen kopurua |

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
|--|--|
| XEDEA | Erosketa eta kontratazino publiko berdea sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.C-2 | Bizkaiko toki-erakunde eta gainerako herri-administrazioen artean, erosketa eta kontratazino publiko berdea bultzatzea |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Informazio eta sentsibilizazio kanpaina zuzenaren bitartez, Bizkaiko toki-erakundeen artean erosketa eta kontratazino publiko berdea bultzatzea. ② Baliabide gitxien daukien udal-erakundeentzako laguntza teknikoa sortzea, erosketa eta kontratazino publiko berderako urratsak ezarteko. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkarlana | Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saila Udalak Mankomunidadeak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Erosketa eta kontratazino publiko berdea egiten daben toki-erakundeen kopurua Erosketa eta kontratazino publiko berderako erespideak ezarteko laguntza eskatzen daben toki-erakundeen kopurua |

| 5. LERRO ESTRATEGIKOA | |
|--|--|
| ARAU ETA ADMINISTRAZINO ARLOKO TRESNAK SORTZEA | |
| XEDEA | Erosketa eta kontratazino publiko berdea sustatzea |
| Jarduketa | |
| LE-5.C-3 | Foru-ekimenez egindako jarduketa guztietan, iraunkortasuna bultzatzea: argitalpenak, ekitaldien antolaketa, komunikazioak... |
| Ekintzak | |
| <ul style="list-style-type: none"> ① Foru-erakundeko sail bakoitzean, aldi-aldi egiten diren jarduketak identifikatea: argitalpenak, ekitaldien antolaketa, komunikazioak... ② Aurreko jarduketan identifikatutako jarduketa bakoitzean, iraunkortasun-erespideak kontuan hartzen ahalegintzea. ③ Bizkaiko Foru Aldundiak garatu daitezkeen jarduketa guztietarako eredu iraunkor orokorrak ezartzea. | |
| Maiztasuna | Eten barik |
| Alkaria | Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiak |
| Arduraduna | Ingurumen Saila |
| Adierazlea | Iraunkortasun-erespideak ezarri dabean jarduketa identifikatuen kopurua |

8.6. Beste jarduketa batzuk

Lehen aitatutako jarduketak alde batera itxita, uri-hondakinen aurrezaintza sustatzeko beste jarduketa batzuk hartu dira kontuan. Jarduketa edo jarduketa-lerro horreek EAEko Uri Hondakinen Koordinazinarako Organoari jakinarazoko jakoz, autonomia-mailan interesa euki daikielako sinergiak lortzeko eta, emoitza nabariagoak jadesi gurean, ahaleginak norabide bakarrean zuzentzeko orduan.

Igorteko asmotan batutako ekimenen eta ideen artean, ingurumena gehiago errespetetan daben produktuak merkaduan zelan bultzatu leitezkezan edo erabilera bakarreko produktuen kontsumoa zelan sustatu leitezkean proposatuko da.

Era berean, oso garrantzitsua da Uri Hondakinen Aurrezaintzarako Hitzarmen Autonomikoa egitea eta, bertan, administrazioek ez eze, hondakinen sorreraren zuzenean inplikaturako eragile guztiek be parte hartzea.

Azkenik, biztanleengandik hurren dagozan administrazioek eta uri-hondakinen arloko eskumen zuzenak benetan daukiezan administrazioek euren estrategiak edo egitasmoak egin beharko dabez hondakinak aurrezaintzeko.

8.7. Jarduketan laburpena

Orain arte azaldutako xede guztietan, 6. irudian laburbatuta agertzen diran jarduketak hartzen dira kontuan. Modu berean, jarduketa bakotxa aurreko atalean xehetasun handiagoz garatu dira ekintza zehatzakaz dago lotuta. Edozelan be, jarduketakaz lotutako ekintza guztiak azaltzen dira **I. eranskinean**, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak plan honen indarraldian aurrezaintzaren arloan garatuko dauzan ekintza guztiak.

6. irudia. Xede bakotxagaz lotutako jarduketak.

XEDE BAKOTXAGAZ LOTUTAKO JARDUKETAK

BIZIMODUAK ALDATZEA

LE-1.A. Kontsumo inmateriala sustatzea eta, produktuen ordez, zerbitzuak erabiltea.

- **LE-1.A-1.** Kontsumo handieneko sasoieta hondakinen aurrezaintzarako kanpainak garatzea.
- **LE-1.A-2.** Kontsumo inmaterialaren inguruko kanpainak bultzatzea.
- **LE-1.A-3.** Kulturako ekitaldiak garatzeko orduan, foru eta udal instalazio guztien erabilera sustatzea.
- **LE-1.A-4.** Ekitaldi publikoetan, produktu berrerabilgarrien erabilera bultzatzea.
- **LE-1.A-5.** Foru-instalazioetan txizoihalak erabilteko proba eredugarria sustatzea.
- **LE-1.A-6.** CDak edo DVDak barik, USB memoriak erabiltea.

LE-1.B. Informazio eta komunikazioaren teknologiek desmaterializazioari begira daukien ahalmena aztertzea.

- **LE-1.B-1.** Informazio eta komunikazioaren teknologien bitartez, foru eta udal arloko agiriaren desmaterializazioa bultzatzea.
- **LE-1.B-2.** Bilboren ekimena kontuan hartuta, udal-wifiguneen ezarpenak sustatzea.

LE-1.C. Kontsumitzaile arduratsuagoak izateko hezteak.

- **LE-1.C-1.** Foru-administrazioaren eta ikastetxeen artean, uri-hondakinen aurrezaintzari buruzko borondatezko hitzarmenak bultzatzea.
- **LE-1.C-2.** Uri-hondakinen kudeaketarako ekintzei buruzko eskola-lehiaketak sustatzea.
- **LE-1.C-3.** Ikastetxeetan, konpostgintzaren ezarpena bultzatzea.
- **LE-1.C-4.** Kontsumitzaileen alkarteak batera, zentzunezko kontsumorako kanpainak bultzatzea.

XEDE BAKOTXAGAZ LOTUTAKO JARDUKETAK

KONTSUMO OHITURAK ALDATZEA

| | |
|---|---|
| <p>LE-2.A. Produktuen erabilera zentzunezkoagoa lortzeko heztea.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • LE-2.A-1. Produktuen erabilera adimendunagaz zerikusia daukien eguneroko jarduera ugariren barri emoteko komunikazio-kanpainak bultzatzea. |
| <p>LE-2.B. Konponketa, berrerabilpena eta alojera bultzatzea.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • LE-2.B-1. Udal, eskualde edo mankomunidade mailan gidak egitea, etxeko era guztietako produktuak non konpontzen dabezan azaltzeko eta udal-mailan "Konponketaren Egunaren" ospakizuna bultzatzeko. • LE-2.B-2. Bigarren eskuko artikulak saltzen dabezan dendei buruzko gidea egitea. • LE-2.B-3. Bizkaian alojeran dagozan artikuluei buruzko gidea egitea. |
| <p>LE-2.C. Iturriko uraren kontsumoa sustatzea.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • LE-2.C-1. Etxeetan iturriko uraren kontsumoa sustatzeko kanpaina. • LE-2.C-2. Foru-aldundiko erakunde eta jantoki guztietan iturriko uraren kontsumoa bultzatzeko kanpaina. |
| <p>LE-2.D. Erosketa-boltsa berrerabilgarrien erabilera sustatzea eta, aldi berean, botateko plastikozko boltsen erabilera gixtitzea.</p> | <ul style="list-style-type: none"> • LE-2.D-1. EAEko Uri Hondakinen Koordinaziorako Organoari plastikozko boltsak errotik desagerrarazoteko ituna proposatzea. • LE-2.D-2. Erosketak egiteko orduan, erabilera bakarreko plastikozko boltsen ordez, oihalezko boltsen banaketa bultzatzea. |

XEDE BAKOTXAGAZ LOTUTAKO JARDUKETAK

GAUR EGUNEKO EKOIZPEN EREDUAN ERAGINA EUKITEA

- LE-3.A.** Produktuetako substantzia toxikoak gitxitzea.
- **LE-3.A-1.** I+G+b jarduerak suspertzea eta bultzatzea, eguneroko produktu garbiagoak ikertzeko.
-
- LE-3.B.** Produktuetako material-kopurua gitxitzea eta lehengai berziklatuen erabilera sustatzea.
- **LE-3.B-1.** Eusko Jaurilaritzari eskatzea hondakinen murrizketarako neurri batzuk derrigorrezkoak izan daitezala lehenengo zein bigarren mailako eskarietako erakunde eta enpresa zehatz batzuentzat.
-
- LE-3.C.** Hondakinen aurrezaintzan zuzenean inplikata dagozan sektoreakaz hitzarmenak sustatzea.
- **LE-3.C-1.** Erabilera bakarrekoak barik, hirugarren mailako bilgarri berrerabilgarriak erabiltea.
 - **LE-3.C-2.** Holan bajagoko, ontziratzaileek eta botilaratzaileek beirazko lehen mailako ontzi berrerabilgarrien erabilera-zokoei eustea eta zabaltzea: freskagarriak, sagardaoa, txakolina...
